

GABRIEL ARESTI, 50 URTE

GEDAR

— **N**azionalismoa ukatzen duen komunista bat da Aresti, keinu horren bidez bultza egiten diona proletariotzaren kultura nazionalari, zeina dagoeneko ez baita burgesiarena eta hura babesten duten klaseena, zeinak ez duen isolazionismoa eta nazio-konfrontazio baztertzailea aldarrikatzen, biziraupen-jarrera sakonki erreakzionario bat hartuz. Oso kontrara, Arestik ekarpena egiten dion kultura nazionalak, proletariotzaren klase-kulturarekin eta haren nazioarteko mugimenduarekin duen konexio unibertsalaren bidez, euskal herria etorkizun komunista berri baterantz proiektatzen du, bai eta kontserbatu beharreko ondare gisa biziarazi ere

Edukia

6	EDITORIALA <i>Arteka</i>	Gabriel Aresti, eredu
8	KOLABORAZIOA Paul Beitia	Gabriel Aresti euskaldun eta marxistaren defentsan
20	KOLABORAZIOA Imanol Satrustegi	Bi suren artean: ezker iraultzailea eta nazio auzia
30	KOLABORAZIOA Aitor Bizkarra	Bakeak euskarari kalte egiten baitio
48	IRITZIA Eli Irazu	Inork ez dezala esan

Gabriel Aresti, eredu

Editoriala

Aurtengo ekainean 50 urte beteko dira Gabriel Aresti hil zenetik. Efemeride hori aprobetxatu nahi dugu Arestiren figura gogoratu eta aldarrikatzeko, eta ostrazismotik ateratzeko, batzuek hartara kondenatu nahi baitute. Are garrantzitsuagoa da hura krisi-garai hauetan gogortzea, non Aresti baliozko erreferentzia eta gatazkaren erreferentzia historikoa den, bere irudian eta obran bi mundu antagoinikoren arteko haustura irudikatzen baitu. Hain justu, Gabriel Aresti figura aztoragarria da euskal nazionalismoarentzat, batasun nazionalaren mitoaren apurketa haragitzen baitu, burgesiaren eta proletariotzaren interes nazional komunaren apurketa hain zuzen.

Gabriel Aresti beti bizi izan da onarpenaren eta ahanzturaren arteko linboan, asimilazioaren eta abandonuaren artekoan. Izan ere, Aresti, euskal kulturaren erreferente handi eta euskal literaturaren berritzaile garrantzitsuenetakoa den neurrian, beste euskal kultura baten erreferentea da: kultura proletario eta komunista batena. Hori dela eta, euskal kulturaren defendatzaile batek ere ezin dezake haren ekarpena ukatu, baina askok ezin dute aldarrikatu. Izan ere, haren obrak euskal kulturari ekarpena egiten dio, hain justu, proletariotzaren igoera sozial eta politikoari –iraultzaileari– loturiko berrikuntza kultural bat delako. Aresti irudi bizi eta gaurkoa da, halakoxea baita klase-emantzipazioaren eta komunismoaren aldeko borroka ere.

Gabriel Aresti figura aztoragarria da euskal nazionalismoarentzat, batasun nazionalaren mitoaren apurketa haragitzen baitu, burgesiaren eta proletariotzaren interes nazional komunaren apurketa hain zuzen

Zentzu horretan, Arestiren ekarpena opari pozoitu moduko bat da nazionalismoak defendatzen duen euskal kultura horrentzat, bere barreneko gatazka baliogabetu egin nahi duen horrentzat. Erloju-bonba bat da kultura oro har aberasten duen ekarpen bati uko egin ezin diotenentzat; ordea, ezin da ahaztu ekarpen hori egiten duela, hain justu, bere garaiari hertsiki lotuta eta harekin konprometiturik jardun zuelako. Euskal kulturarekin apurtzen duen euskal kultura bat da, eta horrexegatik irauten du linboan, bi munduen arteko argi-ilunetan, hiltzen ari den mundu zaharraren eta halako batean agertuko den berriaren artean.

Arestiren figura asaldagarria da, komunista batek kultura nazional bati ekarpena egin diezaiokeela frogatzen baitu; eta, gainera, asaldagarria da ekarpen hori egiteko duen modua ere. Izan ere, zenbat eta ekarpen handiagoa egin kultura proletarioari, klase-emantzipazioaren eta komunismoaren aldeko borrokari, orduan eta sakonagoa da ekarpen horren arrastoa

Arestiren figura asaldagarria da, komunista batek kultura nazional bati ekarpena egin diezaiokeela frogatzen baitu; eta, gainera, asaldagarria da ekarpen hori egiteko duen modua ere. Izan ere, zenbat eta ekarpen handiagoa egin kultura proletarioari, klase-emantzipazioaren eta komunismoaren aldeko borrokari, orduan eta sakonagoa da ekarpen horren arrastoa. Hau da, zenbat eta gehiago hautsi euskal kultura monopolizatu nahi duen nazionalismo horrekin, orduan eta sakonagoa da haren arrastoa.

Horrela, Arestik asaldatu egiten ditu nazionalisten planak, nazionalista izan gabe euskal proletariotzaren erreferente nazionala baita eta euskal herriaren biziraupena bultzatzen baitu; frogatzen du herri baten biziraupena hertsiki loturik dagoela herri horrek bere burua etorkizunean proiektatzeko duen gaitasunarekin, eta horrek esan nahi du etorkizunak gizartearen indar bizietan oinarritu behar duela, iraultza sozialistak antolaturiko proletariotzan, alegia.

Nazionalismoa ukatzen duen komunista bat da Aresti, keinu horren bidez bultza egiten diona proletariotzaren kultura nazionalari, zeina dagoeneko ez baita burgesiarena eta hura babesten duten klaseena, zeinak ez duen isolazionismoa eta nazio-konfrontazio baztertzailea aldarrikatzen, bizi-raupen-jarrera sakonki erreakzionario bat hartuz. Oso kontrara, Arestik ekarpena egiten dion kultura

nazionalak, proletariotzaren klase-kulturarekin eta haren nazioarteko mugimenduarekin duen konexio unibertsalaren bidez, euskal herria etorkizun komunista berri baterantz proiektatzen du, bai eta kontserbatu beharreko ondare gisa biziarazi ere.

Horregatik da Aresti asaldagarria. Haren figura eta oroitzapena existitzeak berak kontraesanak sortzen dizkielako nazionalistei. Nola izan daiteke komunista bat, internazionalista bat, herriaren erreferente kultural? Erantzuna: hain justu horrela. Nola lor daiteke hizkuntza baten eta elkarbizitza-komunitate baten biziraupena uko eginez nazionalismoaren politika baztertzaileari, joera xenofoboei eta arrazistei? Erantzuna: hain justu horrela.

Eta are asaldagarriagoa da haren irudiak eta oroitzapenak gero eta gehiago gorpuzten diren heinean; proletariotzaren emantzipazio-mugimenduak gero eta aurrerapauso handiagoak ematen dituen heinean eta Aresti bera aldarrikatzen duen legatu eta tradizio komunista bat dagoenean. Are gehiago Euskal Herriko Mugimendu Sozialistak posizio nazionalisten kaltetan ematen dituenean aurrerapausoak eta hori kontsekuenteki egiten duenean: gorantz doan eta bere lurrean sakon errotua dagoen nazioarteko mugimendu gisa.

Izan ere, Aresti eta antzeko figura komunistek erakusten dute norberaren sustraiak eta lurralde eta komunitate batenganako maitasuna sakonagoak direla ez direnean bazterketan oinarritzen, baizik eta proletariotza osoa etorkizun komunista baten, etorkizun libre baten aldeko borrokan integratzean. ●

Aresti eta antzeko figura komunistek erakusten dute norberaren sustraiak eta lurralde eta komunitate batenganako maitasuna sakonagoak direla ez direnean bazterketan oinarritzen, baizik eta proletariotza osoa etorkizun komunista baten, etorkizun libre baten aldeko borrokan integratzean

GABRIEL ARESTI EUSKALDUN ETA MARXISTAREN DEFENTSAN

Testua — **Paul Beitia**

Irudia — **Iratí Oskoz @anderebihotz**



Gure gizonik handienetako bat izan zen, iraultzailea izan zelako, iraultzaile sakonki kulturaduna eta gizatiarra, baina osoki iraultzailea, hala ere. Horixe da bere pertsona osoa biltzen duena. Horrexek handiagotuko du haren ospea aurrerantzean.

-E. P. Thompson William Morrisi buruz

Bizia da testamentua. -Gabriel Aresti

Gabriel Arestiren figurak beti bezain labainkorra eta gatazkatsua izaten jarraitzen du 2025 honetan, haren heriotzatik 50 urte bete direnean. Oraindik ere egia da Joxe Azurmendik 1985erako zioena, ez dagoela Arestiri buruz hitz egiterik norbaiti erantzuten edo polemiketan sartzen ibili gabe. Sarritan badirudi kontraesana berezkoa zaiola Arestiren figurari: hanpaduratik desitxuraketara eta gutxiespenera doa, mitotik ezezagutzara.

Izan ere, Arestiz hitz egitea, lehenik eta behin, hari buruzko ezezagutzaz hitz egitea da. Paradoxikoa dirudi: euskal literatura modernoaren historian, dudarik gabe, bera da idazle ezagunenetarik bat, izenez bada ere. Bere burua “euskal literaturaren urrezko orrialdeetatik” kanpo uzteak ez ziola axola idatzi zuen arren, egun, erabat kontsakratuta dago Aresti XX. mendeko euskarazko idazle inportanteenetako gisa. Edozein oinarrizko eskuliburuk dakar haren izena, institutuetan irakasten da, akademian aipatzen, aitortza etengabea egiten zaio literatur esparrutik, literatur sariak daude haren izenean, elkartek, euskaltegia, baita kale bat ere, poema ezagun batean “Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati / nire izenik eman diezaiotela” aldarrikatu zuen arren.

Gainera, kontsakratua ez ezik, Aresti idazle popularizatua ere bada. Gutxitan egin ohi dute bat literatur munduko sonak eta errotze herrikoiak, baina Arestiren kasuan hala izan da. Haren zenbait poemak eta kantak lan literarioetatik harago egina dute jauzi. Oskorri taldeak zabaldu ditu haietako asko, jakina, poeta bilbotarraren testuak musikatzen hasi baitzuen bere bidea taldeak: aski ezagunak dira *Guretzat*, *Emazurtz*, *Gora ta gora beti* eta beste hainbat kanta. Are, Arestik idatzitako zenbait kantetan ez da jakiten ohi hark idatziak direnik: Oskorriren horiez gain, Laboaren *Egun da Santi Mamiña*, *Leteren San Simon eta San Juda* edo Urkoren Guk euskaraz kanta ezagunen testuak Arestirenak dira. Kantez harago, haren zenbait bertso-lerro irakur daitezke han eta hemen, eta ez dute zertan Arestiren izenari berari lotuak egon: “Poesia mailu bat da” har daiteke literatur jaialdi baten titulutzat, ikusi izan ditugu “inoiz, inola, inon ez naiz isilduko” edo “nire aitaren etxea defendatuko dut” bertsoak kamisetetan edo herriren bateko hormaren batean pintatuta.

Hala, poemek poesia bera gainditu eta kalera eta jendearen aho-memoriетara salto egitean, Aresti idazle popularraren goren gradura iristen da ia, herri-kultura anonimora, alegia. Pentsa daiteke, gainera, horixe nahi izango zuela berak:

Nik egin nahi nitek herrirako poesia bat. Gauza aspergarria duk, nire poesiak burges batzuren dos-taketa direla jakitea. Nik ikusten diat Donibaneko deserrian euskaldun burges deserritu eta abertzale bat nola bihurtzen den etxera, eta bertan eguneko lanetik deskantsatzeko, bere whiskia edaten duen bitartean, bere Bachen musika entzuten duen bitartean, Arestiren Bizkaitar bat irakurriko dik. Eta honek, laguna, narda egiten derautak.

Anonimotasun hori ezagutza popularrari dago-kio: Arestiren literatura ez da literatur munduaren jabetza soil, kultura popularrean dago. Hala ere, paradoxikoki, popularizazio hori ezezagutzarekin batera ulertu behar da. Azurmendik 1985erako esaten zuena, “Aresti beste inor baino gehiago aipatzen baita, aipatu; baina inor baino gutxiago aztertu”, egia da nolabait oraindik ere. Ezagutu, idazle bilbotarra bera baino gehiago, hartaz egin den irudi murriz bat ezagutzen da, euskara batuari eta literaturaren modernizazioari dagozkien pare bat gauzaz eta beste hiruzpalau aurreiritzi oinarrigabez osatutako irudia. Baina, hortik aurrera, Aresti apenas ezagutzen den. Ez daukagu irudi osaturik eta egiatirik ez haren bizitzaz, ezta haren pentsamenduaz ere.

Horren arrazoiетako bat, nik uste, bibliografikoa da. Aresti ez bada ezagutzen, haren obra osoaren ezagutza eskasagatik da, eta arazoa haren obrarako sarbideari dago lotuta lehenbizi. 2000. urtean Susa argitaletxeak egin zuen *Harri eta herriren* berredizioaz gain, Arestik bizitzan argitaratu zituen lanak

**Hala, poemek poesia bera
gainditu eta kalera eta
jendearen aho-memoriетara
salto egitean, Aresti idazle
popularraren goren gradura
iristen da ia, herri-kultura
anonimora, alegia**

**Arestiren ezezagutzaren
arrazoi nagusiak, ordea,
ideologikoak dira. Hari
buruzko ezezagutzaren
arrazoia, funtsean, hura
ulertzeko ezintasunean
bilatu behar da**

eta liburuak ez daude berreditatuta, eta, beraz, haietara iristea ez da erraza. *Euskal Harria* edo *Harrizko herri hau* poemarioak, argitaratu ziren garaian hainbeste irakurriak eta halako eragina izandakoak, liburutegi gutxi batzuetako biltegietan topatu ahal izango dira gehienara, senide zaharren baten apalategietan edo bigarren eskuko dendaren batean zortekoren batek. Gainontzeko argitalpenak antologia eta antzekoetakoak dira, eta horiek ere urriak.

Idazle bilbotarraren obra osoak biltzeko bi saiakera egon dira: Kriselu argitaletxearen 1976koa eta Susaren 1986koa. Lehenengoa deskatalogatuta

dago aspaldidanik, eta bigarrena orduko edizioan gelditu da, eta ez da erabat osatua ere –hala ere, Arestiren ezagutzarako ezinbesteko erreferentzia izaten jarraitzen du, serioa eta txukuna baita, gazte batzuen borondate irmoz behinola aterea-. Bestalde, biografia bakarra daukagu, Angel Zelaietak 1977an argitaratua, hori ere dokumentazio-lan ikaragarriko erreferentziatzko liburua, baina halaber izaera profesionalik gabea. Sarbide falta, berrediziorako joerarik eza, argitalpenen izaera militantea eta informala, guztiak dira euskal liburugintzari oro har dagozkion ezaugarriak, eta idazle bilbotarraren obrari ere badagozkio.

Arestiren ezezagutzaren arrazoi nagusiak, ordea, ideologikoak dira. Hari buruzko ezezagutzaren arrazoia, funtsean, hura ulertzeko ezintasunean bilatu behar da. Era guztietako azalpenak entseatu dira, gehienak badaezpadakoak eta partzialak, baina “Arestiren obra, funtsean, jasangaitza zaie piru guztietako espekulatzailerei”, Koldo Izagirrek *Harri eta Herriren* 2000ko adizioaren hitzaurrean adierazi zuenez. Izan ere, Arestiren pentsamenduak, jarrerak eta obrak ideologia sozialista dute oinarri eta bilgarri, eta hori kontuan hartzen ez duen irakurketa, beraz, beti izango da partziala eta desitxuratua. Hala esan zuen Arestik berak 1960an:



Poetaren sentimentua jentearen gustukoa ezpaldin bada, eta poetak bere sentimentuan eta poetatza gorengoan iraun nahi baldin badu, ezpaldin badu bere sentimenturik ukatzen, orduan izanen da gorrotatuta, arbuiatua, gaitzeritzia eta higuindua. (Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak, Susa, 1986).

Hainbat figura sozialistaren patua izan dira arbuio eta desitxuraketa horiexek. William Morrisekin gertatzen da Ingalaterran, esate baterako, Alfonso Sastrerekin Espainian, Verlaine eta Rimbaudekin Frantzian; hainbat eta hainbat desitxuratu dituzte, eta haien izaera politikoa ezkutatu behar izan da dagokien kultura nazionalan integratuko badira. Oinarrian kultura nazionalaren bazterketa- eta integrazio-dinamikak daude: komunitate nazionala, desberdinen batasunaren fikzioaren azpitik, beti osatzen da *modu jakin* batean, klase ertain eta burgesia nazionalen kontrolpeko kultura partikular gisa. Posizio sozialistek, dagokien kultura nazionalan parte hartzen duten hein berean burgesia nazionalen aurka egiten dutenez gero, hautsi egiten dute batasunaren fikzioa. Horregatik, bi aukera egon ohi dira, kontraesankorrak itxuraz, baina dinamika berari bultzatzen diotenak: posizio sozialistak kultura nazionaletik baztertzea edo hartan integratzea posizio hori bera ezkutatuta eta despolitizatuta (bide batez, gai horixe landu zen Artekarren 34. zenbakian, “Hausturak batasunean: kultura nazionalaz eta klase-borrokaz” artikuluan).

Arestiren kasua dinamika horien adibide garbia da. Bizi izan zen aldian bazterketa eta arbuio eten-gabea jasan behar izan zuen bera eduki politikoz erabat hustuta ageri zaigu gaur egun. Beraz, desitxuraketari eta despolitizazioari estuki lotuta ulertu behar dira orain arte aipatu ditugun ezezagutza eta ulermen falta.


Irakurketa partzialak askotarikoak izan dira. Humanista gisa ulertu nahi izan da haren “beti paratuko naiz gizonaren alde” maxima, ulertu gabe Arestirena “gizon konkretua dela”, langile zapaldua, alienazioan eta zapalketan bizi dena, gizagabea murgildua”, Koldo Izagirrek dioskunez. Moralismotzat jo da haren egiagatiko tema, ulertu gabe egia hori ideologia sozialistari lotzen zaiola, langile-klase osoarena dela Arestiren egia, eta etsaiarenari aurre egiten diola: “Nik ere / badut / nire egia, / eta bankero jaunarenak / bezainbat / edo baino gehiago / balio du” (*Harri eta herri*). Eta bilbotarraren lehenengo pertsonaren erabilera indibidualismotzat ere jo izan da, haren ni poetiko etengabea haren ikuspegi pertsonalari soilik lotuko balitzaio bezala, eta ez beste ezeri. Irakurketa horietako inportantee-

Posizio sozialistek, dagokien kultura nazionalan parte hartzen duten hein berean burgesia nazionalen aurka egiten dutenez gero, hautsi egiten dute batasunaren fikzioa. Horregatik, bi aukera egon ohi dira: kultura nazionaletik baztertzea edo hartan integratzea posizio hori bera ezkutatuta eta despolitizatuta

netakotzat har daiteke Azurmendik 1985ean eman zuena:

*Gabriel “ismo” eta ideologiaren arabera klasifikatu nahi izaten dutenek, berriro esango dut, izango dituzte zita-mordo batzu, baina seguru asko Gabrielik batere ez. Axalean, Gabrielen instrumentario ideologikoan, itxuraz aldakuntza handiak aurkitu usteko dira, kristautasunetik, Nietzsche, Marx eta Trotskiganaino. (...) “Ismoek” sekula ez zuten gauza handirik signifikatu Arestirentzat. Konstantea Gabriel da; beste haiek oso aldakorrek dira, eta beti Gabrielen esperientzia txit pertsonalek determinatuak. (“Aresti: sentsibiltate konkretu bat”, *Jakin* 36, 1985).*

Azurmendik ohikoa duen “erreduktionismoaren aurkako” jarrera dario testuari –gutxienez susmagarria da, ordea, “erreduktionismoari” maizenik marxismoa tartean dagoenean egin izan diola aurre Azurmendik-. Irakurketa horren arabera, Arestik landu zituen gaiak “sentsibiltate konkretu” batetik landu zituen, erabat ikuspegi pertsonal batetik, zeina ezin baita makurtu ideologia orohartzailaetara: Arestiren “gizona” izen-abizena zuten inguruko gizakiek osatuko lukete, egia bere-berea litzateke, emandako argudioak eguneroko iritziak, egindako aipuak apeta aldakorrek. Idazlanei begiratu bat ematea nahikoa da, ordea, ohartzeko koherentzia begi-bistakoa dela argudioen, jarreraren eta aipuen artean, eta Arestiren irakurketa pertsonalista hori ez dela nahikoa haren figura ulertzeko.



Horretan bat dator Iñaki Aldekoa bere *Mundua-ren neurria* (1998) liburuan, Azurmendiren irakurketari murritzegia iritzita. Poesia sozialari dagokion garai konkretuaren eragina aztertzea ezinbestekotzat jotzen du, aldarrikatuz Arestik bere buruari bainoago garaiari erantzuteko idazten zuela. Horrek azalpena zabaltzen du: Arestiren konkretutasuna, izen-abizenak eta gertaera zehatzen aipamenak, iritzi-tonua darion poetika, guztiak dira garaia-ri erantzuteko interbentzio-teknikak eta, beraz, zentzu politikoa daukate pertsonala baino gehiago. Aldekoak badaki 50eko eta 60eko hamarkadetako poesia sozialaren testuinguruan, Arestiren “*ni* horrek *guren* bokazioa daukala”, ahots kolektiboa dela, eta hortik tiraka marxismoari erreparatu beharra ere aipatzen du. Marxismo hori ere, ordea, “kategoriaiak gainditu eta traszenditzen duen fenomeno gisa” ulertzen du “ideologia”, kristautasunaren eragina azpimarratuta, Aldekoak dioenez. Eragin hori neurriz kanpo aldarrikatzen du, baina; Arestiren obran tradizio biblikoa material erretoriko eta poetiko errekkurrentea den arren, haren figura osoa ezin da kristautasunaren ikuspegitik ulertu.

Izan ere, Arestiren figura eta obra sakonki politikokoak dira, ideologikoak zentzu politikoan. Alde horretatik ere, hainbat izan dira nazionalismotik haren figura ulertzeko egin diren saiakerak, Arestik euskararen eta Euskal Herriaren askapenaren alde zuen jarreran abertzaletasuna soilik ikusi nahi izan dutenak. Ikuspegi horrek ere, ordea, ezin dezake Aresti bere osotasunean ulertu. Hona hemen zer zioen Koldo Izagirrek gai horri buruz *Harri eta Herriren* hitzaurrean (Susa, 2000):

Nago “aitaren etxea” hau klase marka kendu zaio-lako dela hain nazionala; nekez aurkituko dugu gure literaturan manipulatuagoko testurik, traizionatuagoko espiriturik. Zenbat politikok, abertzaleek bereziki, ez ote dute erabili aitaren etxearena interpretazio partzial eta gezatuan! Ez digute inoiz esaten noren, zeren kontra defendatuko duten aitaren etxea. Izan ere, Arestik garden eta gordin ematen du aditzera “sikatearen kontra, lukurreriaren kontra, justiziarren kontra” altxako dela. Eta horixe ezkutatu digute, ahaztu egin zaigu ia, lukurreroen eta sasijustiziaren ordezkariak direlako maiz aitaren etxea ahotan hartzen dutenak.

Ez irakurketa partikularistak, ezta erlijiosoak edo nazionalistak ere, ezin dute Aresti esplikatu, ez dutelako konpartitzen Arestiren ikuspegia bera. Abiapuntutik bertatik daukate ezintasuna. Aresti,

oinarrian bertan daukan sozialismoa kontuan hartu ezean, horixe bihurtzen da: norbanako kontrae-sankor bat, *outsider* ulergaitz bat, predikatzaille apetatsu bat, bere garaiari estu lotu zitzaion gizon bat, bai, baina behin garai hura igarota modaz pasatuxe gelditu dena. Ideologia sozialistak ematen die koherentzia haren obrari, pentsamenduari eta jarrerari. Ideologia sozialista horretatik bertatik begiratuta soilik ikus daiteke koherentzia hori eta, beraz, irits gaitezke hura ulertzera.

Koherentzia hori, gainera, Arestiren ibilbide osoari dagokio. Idazle bilbotarrak garapen ideologikoa izan zuela, ez zela berdin lehenengoz idazten hasi zenean eta heriotzeko unean, bistakoa da. Ordea, akademian gaur egun erabat finkatuta dagoen denbora- banaketa, Arestik lehenengo fase “sinbolista” bat eta bigarren “sozial” bat izan zuelakoa, okerra edo, gutxienez, garapen ideologiko hori azaltzeko erabat murritza delakoan nago. Banaketa horrek erakutsi lezakeelako Arestiren asmo politikoak eta, beraz, posizio sozialista bigarren faseari bakarrik dagozkiola. Aldiz, hasieratik adierazten ditu molde horretako kezkak eta intuizioak. 1960an Donostian emandako hitzaldia horren adibide:

Gizonek sufritu egiten dute, zerren gizonek animalia bakarra katigatu nahi du. Orduan da momentu lastimagarria eta lotsagarria, zeinean gizonak gizona katigatzen duen. (...) Behekoak bere burrukaldia hasten du goikoaren kontra. Eta goian dagoenean, orduan lehen goian zegoena azpian dago, giza-klase berriak formatzen dirade, eta burrukaldia aurrera doa. (“Poesia eta euskal poesia”, Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak. Susa, 1986).

Ideologia sozialistak ematen die koherentzia haren obrari, pentsamenduari eta jarrerari. Ideologia sozialista horretatik bertatik begiratuta soilik ikus daiteke koherentzia hori eta, beraz, irits gaitezke hura ulertzera

Politikoki heldugabeak badira ere, Aresti gaztearen intuizioek klase-borrokari buruzko kezka eta konpromisoa adierazten dute hasierako fase “sinbolistan” ere, *Maldan behera* (1959) liburuaren garaian. Izan ere, fasekako banaketak adierazi lezake Aresti gazteak ez zuela kezka politikorik adierazten, harik eta poesia sozialaren korronteari heldu zion arte. Are, banaketa horren arabera, pentsa liteke Arestiren marxismoa moda estilistikoa dela, poesia sozialaren inperatiboa. Aldiz, *Maldan behera* liburuan bertan ugariak dira nazioarteko borrokei eta figura iraultzaileei eginiko aipamenak, baita haren posizio politikoak ere: “Nire grazia Aresti da ta orain ez nago ikara / (...) Hamaika neke sufritu nuen hau da bizitza pikara / Bi etsai ditut Hitler da bata bestea Amerika da” (*Lehen poesiak*, Susa, 1986).

Urteetan zehar garapen ideologikoa izan bazuen ere, hasiera-hasieratik sumatzen dira ideologia sozialistaren oinarriak Arestirengan, harik eta, 1960etatik aurrera, eta haren azken urteetan zer esanik ez, heldutasun politikoa hartu eta posizio komunista oso bat finkatu zuen arte. Horregatik ulertu behar genuke Aresti “alderdirik gabeko komunista” gisa. Izendapen hori gerora Hedoi Etxarteri ere irakurri diodan arren, nik dakidala, Jon Juaristik formulatu zuen lehenengoz 2014an, Karmelo Landarekin *Harri eta herriri* buruzko mahai-inguru batean. Juaristiren posizio erreakzionarioak kontuan harturik, bati baino gehiagori sortuko dio harridura haren izenak, baina bera izan zen Arestiren obraren oinordekoetako bat hura hil ondoren, eta hari buruzko aditu nagusietakoa dugu.

“Alderdirik gabeko komunista” izendapenak egoki biltzen du, nik uste, Arestiren politikotasuna. Alde batetik, argitu litzake haren jardun politikoaren izaera eta mugak. Arestik ez zuen jardun politiko organikorik izan, ez zuen “gogoeta operatiborik egiteko parada” izan, hain justu bere bizialdia alderdirik gabe igaro zuelako, “alderdian egunkaria izateko alderdia izatea ezinbestekoa” baita, Gabriel Arestiren eta Bertolt Brechten poema hautatuak biltzen dituen liburuaren hitzaurrean esaten denez (*Poema hautatuak*, Euskalema, 2012). Horrek argitzen du Arestiren politikotasuna, praktikoa bainoago, polemikoa izan zela. Jarduna gidatuko zion eta bere neurrikoa izango zen alderdi komunista baten faltan, kultur esparrura eta eztabaida ideologikora bideratu zuen ekinbide politikoa Arestik, hau da, posizio komunistei helduta alde batekoekin eta bestekoekin eztabaidatzera.

“Alderdirik gabeko komunista” izendapenak egoki biltzen du, nik uste, Arestiren politikotasuna

Beste alde batetik, “alderdirik gabeko” izaerak horixe adierazten du: ez zuela bere neurriko proposamen politikorik topatu bere bizialdian. Hauxe esan zuen Xabier Kintanak, Arestiren lagun eta burkideak, hura hil eta gutxira:

Itxuraz, kontraesan handien arteko gizona genuen Gabriel, Treveriskoaren eta euskalduntasunaren bi-deak elkartu nahirik ibili zena. Horrexegatik, bizi zenean, helburu biok bete ziezazkiokeen alderdirik ezaz, ez zegoen inorekin, independentzia arrabiatu batean baizik. Euskaldunei beren eskuindarkeria aurpegiratzen bazien, ezkertiarrei beren euskaltzaletasunik eza erakusten zien lazki.

Aipuak ezin hobeto adierazten du Arestiren posizio politikoaren izaera: euskaldun marxista izan zen –“Treveriskoa” dioenean, Marxi buruz ari da, jakina–, bizi zen artean eta hil arte, 1972an Baionan emandako hitzaldi batean, haurtzaroko pasadizo baten aitzakian, zin egin zuen bezala. Arestiren pentsamenduaren iturriak bi horiek dira: euskalduntasuna eta marxismoa. Ordea, 50eko eta 60ko hamarkadetako Euskal Herrian, bi iturri horiek modu oso jakinean zeuden gorpuztuak, Arestiri bere neurrirakoak iruditzen ez zitzaizkion modu batean, hain justu. Horregatik, haren iturri izan ziren hein berean, borrokan jardun zuen alde batekoekin eta bestekoekin: PCEko intelektual erdaldunekin, batetik, eta abertzaletasun antifrankista burgesa- rekin, bestetik.

Marxismora sarbidea poesia sozialaren bueltako poeta eta intelektualen eskutik jaso omen zuen Arestik. Blas de Otero, Gabriel Celaya, Angela Figueroa, guztiak ziren PCEkoak eta erdaldunak, eta Bilboko Concordia kafetegian biltzen ziren. Eztabaida intelektual eta literario haiek eragin handia izan zuten Arestirengan, poesia sozialaren korronte poetikoari lotzera eramateaz gain, literatura politiko marxistarekin kontaktuan jarri baitzuten lehenengoz. Aresti, eztabaidetako gainontzekoak ez



bezala, elebiduna zen, eta Euskal Herriko arazo nazionalaren kezka zeukan, baina, hortik aurrera, “ez zuen uste marxismoaz kanpo euskal arazoarentzat soluzio posiblerik zegoenik”, Angel Zelaietaren *Gabriel Aresti. Biografia* (Susa, 2000) lanean aditzera ematen denez Vidal de Nicolás aipatuz. Eragina nabarmena izan bazen ere, ez zuen bere burua haien artekotzat, seguruenik euskal arazo horren gutxi-espenagatik. Oterori berari zuzendutako poema batean argitzen du desberdintasun hori, “Pido la paz y la palabra” poema famatuari buelta emanda:

Hemen hitza
euskal hitza
duzu,
eta galtzarpean dudalarik,
diotsut:
Gerra!
Gordetzen dizut hitza
eta ematen dizut
gerra.
Ene poema guztietarako
lege
bakarra. (Harritzko herri hau)

Horrekin ez genuke, ordea, batzuek sarritan egin bezala, Aresti euskaltzale edo abertzale hutzat jo beharko. Arestik lotura estua izan zuen antifrankismo abertzalearekin, 50eko hamarkadan EGIren bueltan ere ibili zen, baina ez zuen inoiz lotura finkorik egin. Era berean, bete-betean sartu zen orduko euskalgintzan, eta ekarpen handiak egin zituen: hizkuntz esparruan, bera dugu euskara batuaren proiektuaren bultzatzaile eta aitzindari nagusietarik bat eta, literatur esparruan ere, bera izan zen euskarazko literatura hirira eta garai hartako problemetara ekarrita modernizatu zuen idazle nagusietakoa. Jardunbide horretan, etengabe aritu zen elkarlanean beragandik desberdin pentsatzen zutenekin. Ez dago inongo dudarik Aresti euskaltzalea zela, euskararen aurrerabideak kezkatzen zuela, baina hori ez zuen bere posizio komunistatik aparte ulertzen. Euskara estandarra, literatur eta kultur esparru modernoak, guztiak defendatu zituen orduko zenbait euskaldunen posizio erreakzionarioen kontra. Aurreko belaunaldien tradizionalismoa eta apaizkeria kendu eta euskal mundua modernizatzea behar-beharrezkoa zuen “Treveriskoaren eta euskalduntasunaren bideak” elkartuko bazituen.

Dena dela, kultura nazionalaren barruan eginiko ekarpenek eta elkarlanak ez zuten inoiz ere isildu Arestiren posizio komunista. Ondotxo zekien, Franco hil ondoren ere, zinezko aldaketarik eragiten ez bazen, Euskal Herriak berdin jarraituko zuela eta orduan etsaia etxekoa bertakoa izango zela, orduan agertuko zirela “euskal zakurrak eta euzko hienak, eta betiko egoeran jarrikiko diagu”. Horregatik ekin zion etengabe abertzaletasun burgesaren kontra ere, “euskaldun burjesak eta euskaldun proletarioak jo-muga ber-berak ez dituzketela” konprenituta, euskaldun guztien askatasunaren ordezt “jabealdaketa soil eta huts bat” bilatzen zutenen kontra. Posizio horrek, gurean ohikoa den bezala, abertzaletasunak hura baztertzea ekarri zuen. Haren “euskalduntasuna publikoki dudan jarri” zutela ere esan zuen, “nortzuk eta, Letek eta Txillardegik berak ere”, eta etengabe defendatu behar izan zuen bere burua bazterketaren kontra, argudio finez defendatu ere:

Españolista omen naiz, eta hori bekatu omen da Euskal-Herrian. Hala baitabiltza Euskal-Herriko asto guztiak arrantzaka: Aresti, puta-seme, españolista, marikoia, marxista, faltsoa! Etiketa polita jarri didate! Digute! Honela, euskaldun irakurleengandik separatu nahi gaituzte. (...) Hoiek, bere mintzaeran, bi hitzak, españolista eta marxista, sinonimo bezala erabiltzen

dituzte, eta zertako, eta nola (batez ere nola) esplikatu españolistentzat españolistak ez direla marxista, eta marxistentzat españolistak ez direla marxista?

Ez zen, ordea, isildu. Une batean baino gehiagotan amore ematekotan egon zela idatzi bazuen ere, etengabe mantendu zuen bere posizio sozialista. Horretan belaunaldi berrien agerpenak lagundu zion: esan liteke 60ko hamarkada amaieran agertu ziren euskaldun gazteengan topatu zuela kasik bere belaunaldia, bere adinkideengan bainoago. Gazte eskolatuak ziren, marxismoari lotuak ideologikoki, eta frankismo amaierako borroka politikoari emanak. Gazte haientzat eman zituen bere sos urriak editorial berrietan literatura marxista argitaratu zezaten, gazte haiek eskatuta euskaratu zuen 1971n *Internazionala* ereserki sozialista, gazte haien eskutik jardun zuen plazaz plaza antzezlan, errezital eta kontzertuetan.

Euskara estandarra, literatur eta kultur esparru modernoak, guztiak defendatu zituen orduko zenbait euskaldunen posizio erreakzionarioen kontra

**Arestik euskal
munduarentzat eta Euskal
Herriarentzat modernitate
alternatibo bat proposatu
zuen, klaserik gabeko
gizartearena, eta hil
arte defendatu zuen**

Gazteekiko harreman horrek zentzu sakonki politikoa zeukan, beraz. 1975ean hil zen Aresti, eta bere bizialdian alderdirik izan ez bazuen, ez dago jakiterik frankismo amaierako jardun politiko oparoan edo geroago bere neurriko proiektu politikorik topatuko ote zuen ala ez. Baina euskaldun gazte marxistek esperantza piztu ziotela dudarik ez dago. Horregatik, amaierako urteetan aritu zen gazte haiekin batera tradizio marxista euskaldun bat osatzeko lanean. Bizitza osoan egin zuena egiten, “klase sozialik gabeko sozietate euskaldun batekin amets egiten”, baina amets hori burura eraman zezakeen indar berriaren esperantzaz “Honela zioen Arestik 1972an (Artikuluak, Hitzaldiak, Gutunak. Susa, 1986).

Euskal-Herriarentzat gertatzen baldin ez bada produkziozko medioen sozializazio egiazko eta efikaz bat, propietate pribatuan zoroki irauten baldin badugu, edo harentzat ordegarri faltsoak bilatzen baldin baditugu, kooperatibismoa edo kojestioa diren bezala, herriak enganaturik ikusiko du bere burua; ederki konprenituko du bere burrukarekin jabe-aldaketa bat baizik ez duela lortu. (...) Lan ordaindua guztiz nekeza da; langileak plusbalioa zer den ba daki. Marxek esplikatu zion orain ehun urte. Eta plusbalio hau lan egiten ez duenaren eskuetan gelditzen baldin bada, langileari hesteak eta erraiak erretzen zaizkio. Ez duzue uste, ene euskal-kideok, Euzkadin halakorik gerta ez baledi, zoriontsuagoak izanen ginатеkeela euskaldunok?

Arestirengan daukagu euskaldun marxista bat eta, beraz, burgesiaren proiektu nazionalari men egin ez zion euskaldun bat. Posizio horrek biltzen ditu bere figura eta obra osoak, eta posizio horretatik begiratu, ulertu eta berreskuratu behar dira haietan zerbait baliagarria topatzeko gaurkorako eta biharkorako. Arestik euskal munduarentzat eta Euskal Herriarentzat modernitate alternatibo bat proposatu zuen, klaserik gabeko gizartearena, eta hil arte defendatu zuen. Tradizio bat sortu nahi izan zuen, berak amaitu ezin izan zuena, baina material bizi gisa utzi zuena etorkizunerako, balioko zion indar berriren baten esperantzaz. Orain, berrogeita hamar urte iragan orduan ere, etorkizunerako balio digu Arestik batik bat. Haren “oskorriak”, “zoriontasunak”, “libertateak”, “etorkizun gorriak” norabide berean seinalatzen baitute beti: komunismoaren norabidean. ●





BI SUREN ARTEAN:

EZKER IRAULTZAILEA ETA NAZIO AUZIA

Frankismoaren ilunabarrean, Euskal Herriko langile mugimenduak erronka handia jarri zion diktadurari. Izan ere, Espainian ez bezala, oposizio antifrankistaren osaera apartekoa izan zen; ezker iraultzaileko alderdi eta eragileek errotze handia lortu zuten eta PCerekin lehiatu ziren mugimenduaren gidaritza hartzeko. Alderdiok sarri bi suren artean ibili ziren. Euskaltzaleak eta autodeterministak izateagatik, nazionalistatzat hartu zituzten, baina, aldi berean, sektore abertzaleek sukurtsalismoa eta espainolismoa leporatu zizkieten.

Testua — **Imanol Satrustegi**

Irudia — **Saioa Contreras @saigotz**

Ezker iraultzaileko alderdiok sarri bi suren artean ibili ziren. Euskaltzaleak eta autodeterministak izateagatik, nazionalistatzat hartu zituzten, baina, aldi berean, sektore abertzaleek sukurtsalismoa eta espainolismoa leporatu zizkieten

EUSKALTZALETASUN ANTIFRANKISTA

Erregimen frankistak hasiera-hasieratik izaera klasista izan zuen; sorreratik izan zituelakoz helburutzat lan-indarra diziplinatzea eta langile mugimendua menderatzea. Gerraren ondotik ezarritako diktadurari esker, burgesiak etekin handiak metatu zituen. Baina 1960ko hamarkadan gauzak aldatzen hasi ziren. Desarrollismoak ekarritako aldaketa ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorioz oposizio berri bat ernetzen hasi zen. Sektore sozial ezberdinak (ikasleak, komunistak, katolikoak edo nazionalistak) iratzarri egin ziren pixkanaka, eta bat egiten joan ziren, batik bat langile mugimenduaren inguruan, zeina oposizio antifrankistaren bizkarrezur bilakatu baitzen. Klase-borrokaren agertoki berriaren aurrean, proletariotzak borrokarako tresna berriak behar zituen, eta horregatik sortu ziren Langile Batzordeak (Comisiones Obreras, CCOO), zeinak, sindikatu bat baino gehiago, mugimendu unitario eta asanbleario zabala osatzen baitzuten ^[1].

Espainian, oposizioko eta langile mugimenduko indar politikorik garrantzitsuena Santiago Carrilloren Alderdi Komunista (PCE) izan zen. Alabaina, Hego Euskal Herriko egoera ohiz kanpokoa zen,

CCOOren hegemonia ez baitzegoen PCEn esku. Ezkerrerago kokaturiko beste alderdi eta mugimendu iraultzaile batzuek aurrez aurre begiratu zioten, eta harekin lehiatu ziren langile mugimenduaren gidaritza hartzeko. Esate baterako, hor zeuden Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT), Euskadiko Mugimendu Komunista (EMK), Liga Komunista Iraultzailea (LKI), Espainiako Lanaren Alderdia (PTE), Ezker Komunist Erakundea (OICEKE) eta langile-autonomia. Korronte iraultzaileok Arabako, Gipuzkoako eta Nafarroa Garaiko langile mugimenduan nagusitu ziren; Bizkaian, aldiz, lehia parekatuago zegoen ^[2].

Halaber, oposizio antifrankista berri horren ezaugarri bereizgarrietako bat Espainiak zapaldutako nazioen berpizkunde identitario eta kulturala izan zen. Hainbat faktorek eragin zuten prozesu horretan. Batetik, Espainiaren ideia frankismoarekin identifikatu zen, eta, ondorioz, oposizioak, erreakzio modura, nazio zapalduetako ikuspegi nazionalekin bat egiteko joera izan zuen. Hainbestekoa izan zen identifikazio hura, ezen ezkerreko jendearen artean Espainia hitza tabu bilakatu baitzen eta eufemistikoki Estatua erabiltzen hasi ziren. Bestetik, ETAn berrikuntza teorikoek euskal abertzaletasuna kontserbadurismotik atera eta ezkerreko ideiekin uztartu zuten. Pixkanaka, ezkertiaritu egin ziren abertzaleak, eta abertzaletu ezkerria. Erregimena bera arduratu zen oposizioaren sektore guziak barrikadaren alde berean kokatzeaz, konplot gorri separatista bat zegoela uste baitzuen, eta gogor erreprimitu zituen batzuk zein besteak ^[3]. Eta azkenik, kontuan hartu behar da 1960ko hamarkadan Euskal Berpizkunde Kulturala gertatu zela (euskara batua, idazleen belaunaldi berria, euskal artea, kantagintza berria...). Urkok kantatu zuen bezala, “putzu sakon eta ilun” hartatik ateratzen hasi zen euskal mundua.

Pixkanaka oposizio antifrankista guzia Euskal Herriko aldarrikapen nazional eta kulturekin identifikatzen joan zen, eta den-denek, abertzale zein ez, propiotzat hartu zituzten aldarrikapen horiek. Nolabait esateko, frankismoak ezarri zuen Espainiaren ideia zentralista eta hertsiaaren aurrean, identitate berri bat eratu zen, euskaltzaletasun antifrankista dei genezakeena. Tuterako militante maoista batzuen hitzetan, garai hartan “ematen zuen antifrankista izateko abertzalea izan behar zela”. Laster, euskal sinboloek (ikurrinak, euskarak, euskal kulturak edota lauburuek) konnotazio aurrerakoa, demokratikoa eta antifrankista hartu zuten, eta oposizioko alderdi guztiek bereganatu zituzten. Sinbolo horiek balio subertsiboa zuten, eta frankismoaren aurkako errebeldia ikur bilakatu ziren.



Oposizio antifrankista berri horren ezaugarri bereizgarrietako bat Espainiak zapaldutako nazioen berpizkunde identitario eta kulturala izan zen

Erregimena bera horren kontziente zen, eta gogorki erreprimitzen zituen, kasik obsesibo izateraino. Tafallako langile mugimenduko kide bati, esaterako, poliziak isun bat jarri zion 1973an, “bandera separatistaren koloreak” (gorri, berde eta zuria) zituen kapela bat janzte hutsagatik.

Alabaina, sinbolo eta aldarrikapen euskaltzale haiek ez ziren mugimendu abertzaleen eskutik iritsi langile mugimendura. Izan ere, orduko ezker abertzaleak, ETAn borroka armatuak prestigio handia ekarri bazion ere, zailtasun handiak zituen masa-mugimenduekin (batik bat, langile mugimenduekin) bat egiteko. Garai hartan esaten zen “ezker abertzalean ez zegoela obrerorik”. Hainbat arrazoren ondorio zen hori: fronte militarren gehiegizko pisua, errepresio gogorra eta ETak bizitako zenbait zatiketa. Haien militanteak nekez iristen ziren lantoki, ikastetxe edo auzoetara, eta ezker abertzale zibila ez zen garatzen hasi diktaduraren bukaerara arte. Abertzaletasunaren bestelako korronteek (EAJ edo ELA), halaber, presentzia apala zeukaten langile mugimenduan. Orduan, nola txertatu ziren aldarrikapen euskaltzale haiek langile mugimenduan? Langile-klasearen erakunde eta mugimenduei esker izan zen. Besteak beste, ezker iraultzaileko alderdiak izan ziren aldarrikapen eta

Euskal sinboloek (ikurrinak, euskarak, euskal kulturak edota lauburuek) konnotazio aurrerakoia, demokratikoa eta antifrankista hartu zuten, eta oposizioko alderdi guztiek bereganatu zituzten. Sinbolo horiek balio subertsiboa zuten, eta frankismoaren aurkako errebeldia ikur bilakatu ziren

sinbolo euskaltzaleak etorkinez osaturiko auzo proletarioetan nahiz eskualde erdaldunduetan zabaldu zituztenak. Gerraz geroztik Tafallan ikusi zen lehendabiziko ikurrina, esaterako, CCOOko kide batzuek zintzilikatu zuten Luzuriaga lantegiko tokirik garaienean. Iruñean, orobat, 1976ko martxoan, Gasteizko sarraskiari erantzuteko mobilizazioetan xingola beltzdun ikurrinak langile mugimenduko kideek atera zituzten.

EZKER IRAULTZAILEA ETA NAZIO AUZIA

Esan bezala, aldarrikapen euskaltzaleak transbertsal bilakatu ziren, eta alderdi eta mugimendu antifrankista guztien programetan Euskal Herriaren autogobernuaren aldeko eskaerak txertatu ziren. Baina denek ez zituzten lelo horiek modu berean ulertzen, gradazio handia eta aukera sorta zabala zegoen eta: jarrera moderatuenetatik hasi (autonomia) eta erradikaletaraino (separatismoa, independentzia), bitarteko jarrera ugariak kontuan hartuta (federalismoa, konfederalismoa eta abar). Garai hartako ezkerreko indarren artean, eztabaida eta sektarismo handia zegoen. Beti xextran zebiltzan, eta nazio auzia zen eztabaidagai handienetako bat. Oro har, hiru ziren ezker abertzalearen eta ezker iraultzailearen arteko ezberdintasun garrantzitsuenak.

Lehenik, autodeterminazioaren inguruko auzia zegoen. Leninen irakaspenei jarraikiz, ezker iraultzaileko alderdiek defendatzen zuten beharrezkoa zela uztartzea nazio zapalkuntzaren aurkako borroka eta proletarioen arteko klase-batasuna. Horregatik, federalismoaren eta autodeterminazio eskubidearen alde egin zuten, baina ez separatismoa bultzatzeko, baizik eta zapalkuntzan oinarritzen ez zen herrien arteko batasun sendoago bat lortzeko. Ezker abertzalea, ordea, independentista zen, eta baztertu egiten zuen termino horietan planteatutako autodeterminazioa. Hala ere, ezker iraultzaileko alderdien artean ñabardura argiak zeuden. Alderdi maoisten aburuz, batik bat PTEren eta ORTren iritziz, autodeterminazioa lortzeko, le-

henik frankismoa eraitsi beharko zen, eta, jarraian, Espainiako Gobernu zentral berriak autodeterminazio eskubidea aitortuko zien nazio zapalduiei. LCR-ETA (VI)-rentzat eta LCrentzat (1977an LKI sortzeko batu ziren bi alderdi troskistak), aldiz, autodeterminazio-eskubidea aldeztu aurretiko auzia zen. Hau da, diktadura eraitsi bezain pronto, Euskal Herriari subiranotasuna itzuli behar zitzaion sufragio unibertsalaren bidez biltzar edo asanblea bat aukeratzeko, eta horrek erabakiko zuen gainerako herriekin zer lotura edo erlazio izan behar zuen. Halaber, ezker abertzaleari “autodeterminaziorik gabeko independentzia” aldarrikatzea leporatzen zioten, planteamendu hori “bereizketa inposatu” eta “antidemokratiko” moduan hartzen baitzuten, euskal masei erabakia kendu eta “bazter uzten” zituelako. OICek, bere aldetik, planteatzen zuen zapalkuntza nazionalaren aurkako borrokak ezinbestean egon behar zuela loturik klase-gizartearen desagertzearekin eta langile-batasunarekin. Haren ustez, zapalkuntza nazionala eta soziala arazo beraren aldaera ezberdinak ziren, eta, beraz, baztertu egiten zuen auzi horiek bereiztea edo mailakatzea. Harentzat, autodeterminazioak iraultza sozialista baten modukoa izan behar zuen, zapalkuntza guztiak desagertzen zituen ekintza politiko bat, eta askatasun nazional, kultural eta politikoak bermatzen zituen^[4].

Bigarren eztabaidagai garrantzitsua antolaketa-ereduari eta klase-borrokaren markoari zegozkion. Ezker iraultzaileko alderdiek uste zuten klase-borrokarako markoa estatala zela, eta, ondorioz, haien ustez komeni zen iraultzaile guziak Espainia mailako alderdi estatal berdinean elkartzea. Horregatik, ezker iraultzailekoak Espainiako alderdien euskal adarrak ziren. Ezker abertzalearentzat, ordea, klase-borrokaren markoa autonomoa zen, eta “sukurtsalismoa” leporatu zion ezker iraultzaileari. Alabaina, barne-egituran, ezker erradikaleko alderdien euskal adarrek autonomia handia zuten, eta, kasu askotan, euskal probintzietan zeukaten militantziaren zati mardulena. Esate baterako, Ernesto

M. Díaz Macías historialariak 1979an argitaratutako errolda batean, EMKk kalkulatu zuen alderdiak 2.601 kide zituela, eta horietatik 893 (hau da, % 44 inguru) euskal atalari zegozkion.

Hirugarrenik, Nafarroa Garaiaren lurraldetasunaren eztabaida zegoen. Alderdi abertzaleentzat, Nafarroa Euskal Herriaren parte banaezina zen. Francisco Letamendia *Ortzi* parlamentaria abertzaleak, konparaziora, Nafarroaren lurraldetasunaren inguruko galdeketarik planteatzea “norbera bere amaren edo aitaren seme-alaba ote den bozkatzeta” bezala ikusten zuen. Ezker iraultzaileko alderdi gehienek, era berean, Nafarroa Euskal Herriaren parte zela eta sortuko zen Euskal Gobernu autonomoaren parte izan behar zuela aldarrikatzen zuten, baina ñabardura handi batekin. Ezker abertzaleak ez bezala, aitortzen zuten Nafarroak izaera berezia zeukala, eta esaten zuten nafarren iritzia kontuan hartu behar zela, galdeketa baten bidez. EMKk, esaterako, *Zer egin?* aldizkarian defendatu zuen Nafarroak, Euskal Gobernu Autonomoan parte hartzean mantendu egin beharko zituela bere izaera eta autonomia. Gainera, EMKk indar handia zeukan Erriberan, eta horregatik uste zuen nazio-auzia hegoaldean lantzeko beharrezkoak zirela bestelako modu batzuk, inbasio baten moduan uler ez zedin. Besterik zen LCR-ETA (VI)-ren jarrera, alderdi horrek uste baitzuen Nafarroako langile-klaseak, diktadurako azken urteetan, gainerako euskal lurraldeekin bat egin zuela frankismoaren aurkako borrokan. Ondorioz, proletariotzaren batasunarentzako komenigarriena Nafarroa eta gainerako euskal lurraldeek bat egitea zela uste zuen. Alabaina, uste zuen lurraldetasunari buruzko “bai ala ez” moduko galdeketa bat planteatzeak Nafarroako langile-klasean zatiketa eragin zezakeela, eta horrek mesede egingo ziola burgesiari. Edonola ere, antolaketari dagokionez, alderdi iraultzaileen komite nazionalek Hego Euskal Herriko lau probintziak biltzen zituzten, Nafarroa baztertu gabe.

Giro antifrankistetan esaten zen ORT zela nazio auziari buruzko jarrera epelena zeukan alderdia. Alderdi hori Mao Zedongen pentsamenduaren jarraitzailea zen, eta indar handia zeukan Nafarroan eta Gipuzkoako Tolosaldean eta Goierrin. 1969. urtearen inguruan sortu zen, jatorri kristaua zuten sindikatu eta mugimenduen erradikalizazioaren ondorioz. Lehendabiziko urteetan, langile mugimenduan errotzeko jardun zuen batik bat, eta ez zuen ildo politiko edo ideologikoa askorik garatu, 1973-1974 ingurura arte behinik behin. Horregatik, gainontzeko alderdiek sobera “sindikalista” eta “obrerista” izatea leporatu zioten, eta ez zion

nazio auziari askorik erreparatu. Baina aldarri horiek bereganatu egin zituen progresiboki. Hortaz, 1976ko irailean, ikurrinaren omenezko testu bat kaleratu zuten ORTkoek *Abenduak 11* aldizkarian: “laster jarriko da Euskadiko zutoin guztietan gure bandera nazionala [...] gure subiranotasun nazionalaren ikurra [...] Francoren erregimenak zapaldua eta gaur egun Juan Carlosenak”.

Oro har, ETAren korronte obreristetatik sortutako alderdiek sentsibilitate handiagoa erakutsi zuten nazio auziarekiko, EMK-k, konparaziora. 1967an sortu zen, ETAren bulego politikoa kanporatu zutenean. Talde horrek Espainiako beste kolektibo komunista batzuekin bat egin zuen une horretan, alderdi maoista bat sortzeko. Joan-etorriko bidaia

Ezker iraultzaileko alderdiek defendatzen zuten beharrezkoa zela uztartzea nazio zapalkuntzaren aurkako borroka eta proletarioen arteko klase-batasuna. Horregatik, federalismoaren eta autodeterminazio eskubidearen alde egin zuten, baina ez separatismoa bultzatzeko, baizik eta zapalkuntzan oinarritzen ez zen herrien arteko batasun sendoago bat lortzeko. Ezker abertzalea, ordea, independentista zen, eta baztertu egiten zuen termino horietan planteatutako autodeterminazioa



bat egin zuen nazionalismoari dagokionez. Hasierako urteetan (1967-70), distantzia handia markatu zuen ezker abertzalearen nazionalismo erradikalarekin, baina, urteak pasa ahala, berriz ere abertzaletasunera hurbildu zen. Uste zuen langile mugimenduak eta nazio-mugimenduak elkarri bizkarra eman ziotela luzaroan, eta nazionalismoa “jatorri burgesakotzat” jotzen zuen arren, defendatzen zuen biak mugimendu herrikoi zabal batean bildu behar zirela, kapitalismo monopolistaren aurka eta askatasun nazionalen alde borrokatzeko. Hala ere, kezka handia mantendu zuen nazionalismo esentzialistak langile-klasearen barrenean sor zitzakeen gatazka interidentitarioen inguruan. Alde batetik, ulertzen zuen zapalkuntza nazionalak eragindako nahigabeek euskaldunen haserrea sor zezaketela, baina, bestetik, defendatzen zuen haserre hori ezin zela Espainiatik iritsitako etorkinen aurka bideratu. Kexa handienak abertzaleatasunaren sektore batzuetan zentratu ziren, gehienbat Txillardegik eta Iñaki Aldekoak bultzatutako Euskal Sozialista Biltzarrea (ESB) alderdian. EMKren aburuz, “esklusibismo nazionala” baztertu beharra zegoen, eta langile-klasearen batasuna lehenetsi.

HIZKUNTZA-ZAPALKUNTZAREN AURKA

Ezker iraultzaileko alderdiek, beste sektore batzuekin batera, euskararen eta euskal kulturaren aldeko borrokan ere parte hartu zuten. Haien propagandan eta prentsan euskaldunek sufritzen zuten zapalkuntza eta diskriminazioa salatu zituzten. Horiei aurre egiteko, euskararen koofizialtasuna eta “elebitasun erreala” aldarrikatu zituzten.

LCR-ETA (VI)-k, esaterako, espetxeetan errepresio linguistiko gogorra zegoela salatu zuen 1974an; izan ere, funtzionarioek ez zieten bisitetan euskaraz hitz egiten uzten preso politikoen senideei, eta, hala eginez gero, bisita bertan behera geratzen zen momentuan. Hori euskal hizkuntzak bizi zuen zapalkuntzaren beste etsenplu baten modura ikusten zuten. Halaber, 1976an langileei dei egin zien lantegietan ordaindutako euskara-klaseak lor zitzaten. “Ikastola bat lantegi bakoitzean” lelopean, uste zuten langile mugimenduak “ordaindutako ordu libre bat” exijitu behar ziela nagusiei, euskara ikasteko.

LKI zen, hain zuzen ere, ezker iraultzaileko alderdien artean nazio-askapenarekin konprometituena, ETArekin VI. Biltzarrean baitzuen jatorria. Alderdi horrek uste zuen nazionalismo burgesak jada ez zuela gaitasunik nazio-askapenaren borroka gidatzeko, nazio zapalkuntzaren aurkako masa-mobilizazioak kontrajarriak zirelako bere klase-interesekin. Horregatik, 1976ko Kongresuko

Ikastoletan zeuden sektore ezberdinen arteko elkarbizitza ez zen beti erraza izaten, eta ikastola batzuetan liskarrak izan ziren. Hainbat herritan maisu-maistrak nahiz familia batzuk ikastoletatik kanporatu zituzten, “ateoak”, “gorriak” edo “espainolistak” zirelakoan

“Auzo nazionalari buruzko Ebazpena” testutik ondorioztatzen denez, soilik proletariotza iraultzaileak eman ziezaiokeen erantzun koherente bat nazio-zapalkuntzaren aurkako borrokari, askapen nazionala programa sozialistan txertatuz. Era berean, alderdiaren aburuz, euskararen aldeko borrokaren gidaritza ere korronte nazionalisten esku zegoen, eta hori oztopo izan zitekeen euskararen garapenerako. Nazionalismo burgesaren eragina gutxitzeko, LKIk proposatzen zuen auzi kultural eta linguistikoaren borroka langile-klaseak gidatu behar zuela. Horretarako, beharrezkoa zen langile-klasearen abangoardiak (hau da, langile-alderdi iraultzaileak) borroka horren buruan jartzea kontsekuenteki. Soilik horrela lortuko zuten “burgesia euskaltzalearen” eragina gutxitzea.

Ikastoletan ere korronte edo ildo ezberdinen arteko lehia gertatu zen. Izan ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadan euskararen aldeko borrokaren fronte garrantzitsuenetako bat irakaskuntzarena izan zen. Ipar eta hego, euskal lurralde guzietan jarri ziren martxan helduak zein haurrak euskalduntzeko eta alfabetatzeko ekimen herritarrek. Horretarako, gau-eskolak eta ikastolak sortu ziren han eta hemen, askotan modu alegal edo klandestinoan.

Hortaz, 1974an LCR-ETA VI.ak *Zutik!* aldizkarian adierazi zuen ikastolen mugimenduaren barrenean bi korronte zeudela. Alde batetik, korronte abertzale eta burgesa zegoen, nazionalismo kontserbadore klasikoa eta euskal burgesia tradizionala (EAJ) nahiz burgesia teknokratikoa eta erdi-mailako koadroak (ELA) ordezkatzen zituenena. Bestetik, aldiz, ezker iraultzaileak ordezkatzen zituen korronte herrikoi

Herri Batasuna koalizioa eta ezker abertzalea erregimen berriaren aurkako “gaitzespen-fronte” moduko bihurtu ziren, eta nazionalismo erradikala “babesleku” izan zen iraultzaile askorentzat

eta aurrerakoiak zeuden. Alderdi horren ustez, lehen korronteak balio kristau eta kontserbadoreetan oinarritutako hezkuntza defendatzen zuen. LCR-ETA (VI)-ren ikastola-eredua, ordea, ezberdina zen. Troskistek nahiago zuten izaera aurrerakoi, laiko eta herrikoia zeukaten ikastolak bultzatzea. Halaber, defendatzen zuten ikastolek herriaren eguneroko arazoekin loturik egon behar zutela. Antolaketa eta funtzionamenduari dagokionez, asanblearioak eta demokratikoak izan behar ziren, irakasleen nahiz gurasoen partaidetza bermatzeko. Korronte ezberdinen arteko gatazka horren aurrean, LCR-ETA VI.ak uste zuen ETA (V)-kparte har zezakeela korronte iraultzailean, eta berarekin bat egiteko deia egiten zion. Baina, antza denez, ez zuen arrakasta handirik izan, “espainolismoaren” aitzakiapean ia beti “euskal eskuinaren” jarrerei babes ematea leporatu baitzioten ETA (V)-ri.

Bistan denez, ikastoletan zeuden sektore ezberdinen arteko elkarbizitza ez zen beti erraza izaten, eta ikastola batzuetan liskarrak izan ziren. Hainbat herritan maisu-maistrak nahiz familia batzuk ikastoletatik kanporatu zituzten, “ateoak”, “gorriak” edo “espainolistak” zirelakoan. Hala gertatu zen Arrasaten, Gernikan edo Iruñean. 1979an, esaterako, Euskadiko Langileen Partiduak salatu zuen Andoaingo ikastolatik familia bat kanporatu zutela ikastetxearen pedagogia atzerakoa salatu eta semeetako bat beste ikastola aurrerakoiago batera eraman zutelako. *Yesca* aldizkarian ageri zen lerrobua aski argia izan zen: “Ikastolas si, pero no carcas”.

Testuinguru horretan, Trantsizioko urteetan Iruñean ikastola proiektu berezi bat sortu zen: Udal Ikastola. Eredu hori ezohikoa eta bakarra izan zen Euskal Herri osoan, eta Asier Yaniz historialariak ikertu du. Ezker iraultzaileko eta langile mugimenduko guraso batzuek, ordura arte zeuden ikastola

pribatu eta konfesionalen aurrean, ikastola publiko eta laikoa eratu zuten 1976an. Horretarako, legedia frankistaren zirrikituak eta Iruñeko udalean zeuden zinegotzi ezkertiarren konplizitatea baliatu zituzten. Ezker abertzalearen sektore batzuek, hasiera batean, nahiago izan zuten Herri Ikastola izeneko proiektua bultzatzea, Udal Ikastola erakunde publiko espainolen mendekoa zelakoan. Herri Ikastolak, ordea, ez zuen luze iraun, eta, laster, hango familia ugari Udal Ikastolarekin egin zuten bat. Udal Ikastolak luzaz borrokatu behar izan zuen (bai azken udal frankistarekin, eta baita demokrazia-garaiko lehendabiziko udalbatzekin ere). Euskara-ereduko hiru ikastetxe publiko Nafarroako hezkuntza-sarean egonkortu zirenean konpondu zen gatazka.

DESENGAINUA ETA IRAULTZAILEEN BABESLEKUA

Diktaduraren azken urteetan, aldarrikapen nazionalak barneratu ahala, ezker iraultzailearen eta ezker abertzalearen arteko hurbilketa gertatu zen. 1975 eta 1976 artean lankidetzaren giroa zabaldu zen, eztabaida sektarioak mantendu ziren arren. Alabaina, Euskal Herrikoi Batzarra eta Euskal Erakunde Herritarra plataformak bultzatzea lortu zuten, indar iraultzaileen arteko koordinazio espazio moduan, eta 1976ko Aberri Eguna elkarrekin antolatu zuten Iruñean, oposizio moderatuaren parte hartzerik gabe.

Baina Trantsizioak indar korrelazioak aldatu zituen. Urte gutxian gauzak asko saldatu ziren. Ezker iraultzailea, zeinak ordura arte presentzia handia izan baitzuen langile mugimenduan, gainbeheran sartu zen, krisi ekonomikoaren, burgesiaren ofentsibaren eta langile mugimenduaren atzeraldiaren ondorioz. Herri Batasuna koalizioa eta ezker abertzalea, aldiz, erregimen berriaren aurkako “gaitzespen-fronte” moduko bihurtu ziren, eta nazionalismo erradikala “babesleku” izan zen iraultzaile askorentzat. Horren ondorioz, EMK eta LKI liluraturik geratu ziren HBren gaitasun elektoral eta sozialarekin, eta haren inguruan orbitatu zuten. Hainbatetan harentzako botoa eskatu zuten. Baina ezker abertzaleak haiekin lankidetzan aritzeko uzkur egoten jarraitzen zuen, espainolismoaren aitzakiapean. Beraz, harremanak errazteko, bi alderdiok haien adar espainoletatik bereizi ziren 1980ko hamarkadan, eta independentziaren leloa onartu zuten.

PTEk ere ezker abertzalera hurbiltzeko joera progresiboa izan zuen. Horregatik, EEren erreformismoaren eta HBren populismo maximalistaren arteko zubia izaten saiatu zen 1978 eta 1979 artean. ORTk, aldiz, bide moderatua hartu zuen Trantsi-

zioan. Bere burua oraindik iraultzailetzat zeukan arren, Konstituzioaren eta Gernikako Estatutuaren aldeko jarrera hartu zuen. Gainera, publikoki terrorismo guziak salatzen hasi zen, baita ETaren indarkeria ere. Erabaki horien ondorioz, alabaina, bere oinarri sozialetik urruntzen hasi zen, eta ORTko kide ohi ugariaren ustez, hori izan zen alderdiaren galbidearen hasiera. Krisi politiko eta ideologikoari aurre egiteko, PTEk eta ORTk ezustean bat egitea erabaki zuten 1979ko udan. Baina batasun-prozesu hark ez zuen arrakastarik izan, eta bertan behera geratu zen hilabete gutxira. Hilabete batzuk beranduago, PTEko militante ohiek “Aportación a la Revolución Vasca” dokumentua kaleratu zuten, ezker abertzalearen tesi ideologikoekin eta HBrekin bat egiten zutela iragartzeko.

ONDORIOAK

Diktaduraren amaierako urteetan, ezker iraultzaileak eta langile mugimenduko alderdiek konpromiso nabarmena erakutsi zuten Euskal Herriaren eskubide nazional eta kulturalekin. Beren jatorrizko ikuspegi internazionalistatik abiatuta, nazio-auziaren aldeko posizioak bereganatu zituzten progresiboki, eta hainbat kasutan ezker abertzalearen ildora hurbildu ziren. Hala ere, ezker abertzalearekin izandako harremana ez zen inoiz erraza izan: elkarlanerako saiakerak egon baziren ere, tentsio ideologikoei eta posizionamendu politikoei hausturak eta desadostasunak eragin zituzten.

Testigantzek agerian uzten dute askotan ezker iraultzailearen eta abertzaleen arteko konfiantza oso hauskorra zela, eta testuinguruaren arabera posizioen interpretazioak aldakorrak izan zitezkeela. Esate baterako, Erriberako PTEko militante batzuek kontatzen zuten Gipuzkoara joan ziren batean liskarra izan zutela hango batzuekin, “espainolista izatea” leporatu zietelako; baina Tuteran, aldiz, paradoxikoki, “euskaldun”tzat hartzen zituzten ikurriak zintzilikatzen zituztelako. Bi suren artean ibili ziren beti. ●



ERREFERENTZIAK

- [1] Doménech Sampere, X. (2022). *Lucha de clases, franquismo y democracia: Obreros y empresarios (1939-1979)*. Akal.
- [2] Satrustegi, I. (2022). *Beste mundu bat nahi genuen. Nafarroako Gobernua; Wilhelmi, G. (2016). Romper el consenso: La izquierda radical en la Transición (1975-1982)*. Siglo XXI; Satrustegi, I. (2025). *Atreverse a luchar. La izquierda revolucionaria y la Transición en Navarra*. Txalaparta.
- [3] Ansa Goicoechea, E. (2019). *Mayo del 68 vasco: Oteiza y la cultura política de los sesenta*. Editorial Pamiela; Almeida Díez, A. (2022). *El pueblo trabajador vasco: Breve historia de la formación de un concepto y sus consecuencias estratégicas en ETA. El Futuro del Pasado: Revista Electrónica de Historia*, 13, 543–582.
- [4] Jiménez de Aberasturi Corta, J. C., & López Adan, E. (1989). *Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición: Euskadi 1976*. Eusko Ikaskuntza.



BAKEAK EUSKARARI KALTE EGITEN BAITIO

-Testua — **Aitor Bizkarra**

Irudia — **Ane Odriozola @zeozertan**

Tolstoi izeneko poeman honela adierazi zuen Arestik, ohikoa zuen hizkera zirikatzailean: “Kristo zalea naiz. / Berra gerra ekartzera / etorri baitzen, / eta bakeak / euskarari / kalte egiten / baitio”. Itxuraz ziria besterik ez denak izan dezake egiatik, ordea. Nork idatzia den jakinda, errezeloa daukat baiespen hori euskararen eta politikaren arteko erlazioari buruzko ohartarazpena dela: “Ez ezazue ahantz, euskararena afera politikoa da!” edo horrelako zerbait. Horrexegatik iruditzen zait ziria iradokitzailea. Izan ere, nago ez ote garen euskara tratatzen ari ekologikoki, ekologikoki, eta klase-borrokari gabeko ekologismoak lorezaintzan geratzeko arriskua izaten du.

Datozen lerroetan, intuizio horri tiraka buruan erabili ditudan hausnarketa pertsonalak aletzen saiatuko naiz. Pertsonalak, diot, ez euskarak ezinegon pertsonala sortzen didalako soilik (esan gabe doa sortzen didala), baizik eta gogoetok ez direlako kidea naizen mugimendu politikoaren adierazpen ofizial bat. Leudekeen tokiz kanpoko ideien eta akatsen ardura osoa neurea da, beraz.

IKUSPEGI EKOLOGIKOTIK POLITIKORA

70eko hamarkadan hasi zen itxuratzen hizkuntzen gaineke ikuspegi ekologikoa. Ekologia biologikoaren arrastoan, ekologia linguistikoak hizkuntzak *espezie* bihurtu zituen eta beren inguruabarrekin eta gainontzeko hizkuntz espeziekin zein erlazio dituzten aztertzea proposatu zuen. Horrela, hizkuntzen askotarikotasuna, bilakaera eta elkarrekikotasuna aztertzeke markoa ezarri zuen ekologia linguistikoak, lehenago ekologia biologikoak izaki bizidunekin egin zuen ildotik. Organismoek eta hizkuntzek ez dute airean flotatzen, izan ere.

Esparru teorikotik soziopolitikora jauzi eginda, XX. mendeko azken hamarkadetan gora egin zuten jarrera ekologistek, bai ekosistemen eta bizitza-formen dibertsitatearen defentsan, bai eta hizkuntzen dibertsitatearen defentsan ere. Funtsean, hizkuntzen gaineke kontzientzia ekologistak, lorezain-jarrerak, honako uste hau inplikatzan du: hizkuntzen balioa ez da estrintsekoa edo instrumentala soilik, intrintsekoa edo berezkoa ere bada. Esan nahi baita: hizkuntzek daukaten balioa ez daukate komunikazio-tresnak diren aldetik bakarrik, badago hizkuntzetan *zerbait* baliotsua dena *berez*. Zelanbait, jarrera ekologistak iradokitzen du hizkuntzek *duintasuna* dutela, eta, jakina denez, duintasuna duenari irauteko eta garatzeko eskubideak zor zaizkio.

Funtsean, hizkuntzen gaineke kontzientzia ekologistak, lorezain-jarrerak, honako uste hau inplikatzan du: hizkuntzen balioa ez da estrintsekoa edo instrumentala soilik, intrintsekoa edo berezkoa ere bada. Esan nahi baita: hizkuntzek daukaten balioa ez daukate komunikazio-tresnak diren aldetik bakarrik, badago hizkuntzetan zerbait baliotsua dena berez. Zelanbait, jarrera ekologistak iradokitzen du hizkuntzek duintasuna dutela, eta, jakina denez, duintasuna duenari irauteko eta garatzeko eskubideak zor zaizkio

Ikuspegi hori ohoragarria izanik ere, abstraktuegia gertatzen da hizkuntz auzia politikoki pentsatzeko. Konkretura joz gero, hizkuntzen duintasunaren arazoa hiztunen duintasunarena arazoa da; zehatzago, herritarren duintasunarena, herritarrak hiztunak ere badiren aldetik. Herritarrek, ordea, determinazio gehiago daukate hiztunak izateaz gain: ekoizpen-bitartekoen jabeak eta desjabetuak dira, etxejabeak eta maizterrak, burgesak, burges txikiak, langile aristokratak, proletarioak.

Subjektu determinatuen arteko interes-gatazkek herritarren arteko eskubide-gatazken forma bezititzen dute juridikoki, halako moldez, non gatazken forma juridikoak haien eduki erreala ezkutatzan baitu maiz. Zer da, ba, esaterako, etxebizitza-eskubidearen eta jabetza-eskubidearen arteko gatazka, etxejabeen eta maizterren arteko gatazkaren espresio juridiko partikular bat baizik? Etxebizitza-problematikan, gainontzekoetan legez, bandoak izaten dira, baina bando horiek ez dira *berdinzaleak*

eta *askezaleak* izaten. Bistan denez, euskararen afe-rak ere baditu adierazpide juridikoak: sarri aritzen gara hizkuntz eskubideen urratzeaz edo esaten digute hizkuntz eskakizunek gainontzeko eskubideak urratzea eragiten dutela. Bada, zein da zuzenbide-gatazka horiek ezkutatzan duten eduki konkretua? Euskaldunen eta erdaldunen arteko tirabirak burgesen eta proletarioen arteko tirabirak al dira? Zein erlazio dute hizkuntz ardatzak eta klase-ardatzak gurean? Klase-dominazioaren aurkako borrokak hizkuntz zapalkuntzaren aurkako borroka ere izan behar du? Eta, hala izan behar baldin badu, nola? Ez dirudi erantzun sinplerik dagoenik.

Euskara gizateriaren ondare immateriala dela adierazte hutsa, behintzat, hankamotz gelditzen da galdera horiei erantzun egokia emateko; beharrezkoa da hizkuntz auzia (zehatzago, hizkuntza gutxituen auzia eta, horrenbestez, euskararen auzia) politikoki pentsatzea. Eta euskarari buruz politikoki pentsatzeko, planteamendu aldaketa bikoitza behar dugu: batetik, bilgarri juridikoez eta ideologikoez haragoko edukiari erreparatu behar diogu; bestetik, pentsatu behar dugu zein erlazio daukan afera horrek gure estrategia politikoarekin. Estrategia sozialistarekin, alegia.

Estrategia Sozialista Berriaren (ESB) lurralde-markoa nazioartekoa da; Europa mailakoa, gutxienez. Hortaz, ez du euskal sozialismorako bide-orririk proposatzen, baizik eta sozialismorako bide-orri orokorra, Euskal Herrirako ere balio duena. Horra aldea: euskal sozialismoa ala sozialismoa Euskal Herrian.

Marko estrategiko orokor horretan, gauden fase historikoari dagokion helburu estrategikoa komunismoa politikoki eta kulturalki berrosatzea da. Helburu horren barruan, ordea, bi eginkizun nagusi bereizi ditugu. Batetik, proletariotzaren sektore aurreratuenak organizatiboki batzea masa-antolakunde sozialistetan; bestetik, proletalgoaren kultura politiko orokorra eraberritzea sozialismoaren erreferentzia-sistema ideologikoan ardaztuta. Laburbilduz, gure estrategiaren plano orokorrean, fase honetako helburu estrategikoa honakoa da: langile-klasearen batasun politikoa eta kulturala erdiestea programa komunistaren eta kontzientzia sozialistaren inguruan.

Era berean, ESBk proletalgoa politikoki eta kulturalki batzeko proposatzen dituen ildo taktikoak ere orokorrak dira: unifikazioa eta hegemonizazioa. Orokorrak dira, hain zuzen, Europako gizarte guztietan daudelako koiuntura historikoari dagozkion zenbait erronka formazio sozial guztiek gu-

txi-gehiago komun dituztenak eta, beraz, erronka orokor horien aterabidea ez dagoelako tokian tokiko idiosinkrasia berezien ikuspegitik ebazterik; lan-ildoek orokorrak izan behar dute. Edozein kasutan, marxismoa ez da, ezin du izan, formula abstraktuen biblia bat, errealitate soziala bera ere ez baita sinplea eta homogenea; ezaugarri orokor eta egiturazkoez harago, formazio sozial partikularrek elementu historiko, politiko eta kulturalen sistema konplexuak osatzen dituzte. Horregatik, estrategia eta ildo taktiko orokorren aplikabideek tokian tokiko egoera eta joera partikularretara egokitu behar dute. Horra hor Leninek marxismoaren arimatzat zuen “egoera konkretuaren analisi konkretua”ren garrantzia, erronka politikoak tokian tokikoak ere bai baitira, eta horiei ezikusi egitea baino bide las-terragorik ez baitago porroterako eta hutsaltasun politikorako.

Eta euskarari buruz politikoki pentsatzeko planteamendu aldaketa bikoitza behar dugu: batetik, bilgarri juridikoez eta ideologikoez haragoko edukiari erreparatu behar diogu; bestetik, pentsatu behar dugu zein erlazio daukan afera horrek gure estrategia politikoarekin. Estrategia sozialistarekin, alegia

Estrategia sozialistaren bide-orri orokorra Euskal Herrian lurreratzeak askotariko erronka intelektual eta politikoak dakartza, ezin zehatzagoak, zeinen artean bat baita euskararena

Horiek horrela, estrategia sozialistaren bide-orri orokorra Euskal Herrian lurreratzeak askotariko erronka intelektual eta politikoak dakartza, ezin zehatzagoak, zeinen artean bat baita euskararena. Zein zoru sozial konkretutan batu nahi dugu politikoki eta kulturalki klase-subjektu eraberritua Euskal Herrian? Jakinekoka da Euskal Herriko langile klasea linguistikoki bereizita dagoen giza talde heterogeneoa dela, besteak beste. Dena den, hori ez da Euskal Herriaren singularitasuna; izan ere, Europan (zer esanik ez, munduan) badaude hizkuntz auzi partikularrak dituzten lurralde gehiago. Hor-taz, Euskal Herriko hizkuntz auziaren nolakotasun espezifikuari erreparatu behar zaio, ez baita argigarriegia langile-klasea hainbat hizkuntz komunitatek osatzen dutela ohartarazte hutsa.

Euskal Herrian tokiko hizkuntza gutxitua daukagu, geometria aldakorrekoka: ofizialtasun-gradu aldakorra du lurraldeka, sustraitze-gradu aldakorra du sektore soziodemografikoka eta diglosia-egoeran dago, hots, gizarte-funtzio jakinetan azpiratua. Horrez gain, hizkuntza gutxitu hori elementu zentrala da giza talde oso esanguratsu baten identifikazio-prozesu soziokultural eta, are, politikoetan; hau da, ez da komunikazio-tresna soila, nortasun kultural eta politiko kolektiboen osagai garrantzitsua ere bada. Azkenik, konstatazio historiko-enpirikoa da hizkuntz komunitate horretako langile-sektoreak izan direla Euskal Herriko aktore politiko eta sozial dinamikoena eta, bizitasun politiko eta sozial hori apaltze bidean den arren, orain ere hala izaten jarraitzen dutela.

Partikularitasun horiei guztiei ez ikusiarena eginez gero, helburu estrategikoa klase-batasuna izanik, silogismo abstraktu eta simple hau otu dakiguke:

p1: Klase-batasunak batasun kulturala inplikatzen du.

p2: Euskal Herrian euskarak batasun kulturala eragozten du; gaztelaniak eta frantsesak, berriz, erraztu egiten dute.

O: Estrategia sozialistak, klase-batasuna helburu, gaztelania eta frantsesa izan behar ditu lehentasunezko komunikazio-tresna, eta euskara baztertu egin behar du.

Badirudi, ordea, logika abstraktu horrek huts egiten duela auzi politikoei konkretuki heltzeko garaian. Horren erakusgarri ezin hobea da Espainiako taldexka komunista gehienek Euskal Herrian duten eragin hutsala. Izan ere, Euskal Herrian ez dago klase-batasuna lortzeko bide-orri antzuagorik partikularitasunari ez ikusiarena egiten dion sasiunibertsalismo mota hori baino, klasea batu ordeztu klasearen barruko tentsio linguistiko eta nazionalak hauspotu besterik ez baititu egiten. Gainera, logika abstraktu hori, funtsean, ez da batere abstraktua: ikuspegi nazional espainola ezkutatzen du apainduria unibertsalistaz jantzita.

Euskal Herrian ez dago klase-batasuna lortzeko bide-orri antzuagorik partikularitasunari ez ikusiarena egiten dion sasiunibertsalismo mota hori baino, klasea batu ordeztu klasearen barruko tentsio linguistiko eta nazionalak hauspotu besterik ez baititu egiten. Gainera, logika abstraktu hori, funtsean, ez da batere abstraktua: ikuspegi nazional espainola ezkutatzen du apainduria unibertsalistaz jantzita



Argudiobide abstraktutik harago, ez dago esaterik euskara klase-batasunerako traba denik: zinez traba balitz, hura alboratzeak erraztu egingo luke Euskal Herrian klase-batasuna gauzatzea. Zorionez (batzuentzat zorigaitzez), Unamunoren amets bustia baizik ez da hori.

Klase-batasunerako eragozpenik behinena euskararen diglosia-egoera bera da, zeinak kontraesan emankorra bezain mugatzailea sortzen baitu euskararen subalternitate funtzionalaren eta zentraltasun identitarioaren artean. Alde batetik, funtzio sozial guztien jabe diren hizkuntza menderatzaileek, hau da, gaztelaniak eta frantsesak, ez dute ahalbidetzen euskaldungoarengan trakzio politikorik eragiterik, dominazio linguistikoaren espresio gisan hautematen baitu euskaldunak hizkuntza dominantean egindako komunikazio-politika, dakarren mezua ustez iraultzailea izanagatik ere. Horrenbestez, langileriaren sektore politizatuenen artean ez dago euskararik gabe propaganda politikorik eta unifikazio-taktikarik gauzatzerik. Bestalde, ordea, euskararen diglosia-egoerak ez du posible egiten soilik euskarazkoa den masa-politikarik, hegemonizazioak eta agitazio politikoak hartzailearen afektuak astintzea bilatzen baitute: gutxitutako hizkuntzan ez dago gehiengoaren sentsibilitatea hunkitzerik.

Bada, korapiloa korapilatzen duena ez da euskara, euskararen diglosia-egoera baizik. Horregatik, behin-behinean honako hipotesi honi deritzot zuzena: euskararen diglosia-egoerak traba egiten du Euskal Herrian langileen klase-batasuna gauzatzeko. Ondorioz, arestian ezarritako helburu estrategikoari jarraikiz (hots, langile-klasea kultura politiko eraberritu baten inguruan batzea), honako hipotesi politiko hau da egokia: Euskal Herrian, klase-subjektuaren batasun politikoa eta kulturala ehuntze aldera, euskararen diglosia-egoerari aurre egitea nahitaezko mediazioa da.

Dena den, orokorregia gertatzen da euskararen diglosia-egoerari aurre egin behar zaiolako baiespena, eta bigarren mailako beste zenbait arazo dakartza hegaltzan.

EUSKARAREN HISTORIA MATERIA-LISTA BATERAKO APUNTE SOLTEAK

Nolakoa da, zehazki, euskararen diglosia-egoera? Diglosiaren tipologia klasikoak erreferentzia egiten dio giza komunitate baten barruan bi hizkuntzen artean dagoen distribuzio funtzionalari, non hizkuntza horietako batek gizarteko goi-funtzioak (zientzia, administrazioa, goi-kultura...) betetzen dituen eta bestea, aldiz, ahozkotasunean


eta testuinguru informalean gotortua dagoen. Halaber, distribuzio funtzional horrek hizkuntzen klase-distribuzio jakina dakar berekin: hizkuntza menderatzailearen ezagutza eta erabilera klase menderatzailearen ikur linguistikoa izan ohi dira. Euskararen egungo egoerak, ordea, ez du tipologia horrekin guztiz bat egiten; ez, behintzat, euskararen lurralde osoan. Hortaz, premiazkoa da euskararen diglosia-modalitate zehatza atzematea, bai eta modalitate horri dagozkion klase- eta hizkuntza-ardatzen erlazioak identifikatzea ere. Lan horretarako, euskararen bilakaerari begiratu historikoa ematea ezinbestekoa da.

Koldo Mitxelenaren aipurik ezagunena eta erabiliena izango da akaso euskararen misterioa ez dela haren jatorria, haren iraupena baizik. Abiapuntu egokia, ezbairik gabe. Izan ere, askoz eraginkorragoa da jatorri historikoa baino gehiago arrazoi historikoa miatzea, euskarak iraun izanaren kausak eta haren biziberritzearen posibilitate-baldintzak aztertu nahi dituenarentzat behintzat.

Ilde horretan, Franscisco Letamendia *Ortzik* eta Emilio López Adan *Beltzak* euskal nazionalismoari buruzko ikerlanekin urratu zuten bideari segi beharko lioke euskal historiagileen belaunaldi berri batek: Euskal Herriaren historia materialista behar dugu. Inspiratzaileak dira Beltzaren *El nacionalismo vasco. 1876-1936, Del carlismo al nacionalismo burgués eta Nacionalismo vasco y clases sociales*; eta Ortziren *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*.

Euskarari dagokionez, azken ehun eta berrogeita hamar urteetako historia materialista baten premian gaude; zehazki, 1876tik gaur egunera artekoa. Abiapuntu modura, lagungarriak gerta litezke Xabier Erizeren eta Juan Madariaga Orbearen lanak. Beltzarena eta Ortzirena baino ikuspegi zientifiko desinteresatuagotik, euskararen historiari espresuki modu materialistan heldu diote Xabier Erizek (*Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*) eta Juan Madariaga Orbeak (*Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*).

Erreparatu beharko genioke Euskal Herrian zein baldintzapen-erlazio izan diren 1876tik gaur arte Kapitalaren metaketa-zikloen, ziklo politikoaren, ziklo kulturalen eta ziklo linguistikoaren artean, eta erlazio horiek zein diglosia-modalitate sortu dituzten unean une. Finean, egitate estrukturalak, politikoak, kulturalak eta linguistikoak ordenan jarriko eta ulergarri egingo dituen historiografia bat behar dugu.



Iñaki Iurrebasok egin zuen ziklo linguistikoaren periodizazioa abiapuntu erabilgarria da horretarako. Ordezkapen-, biziberritze- eta geldotze-aroak zerrendatu zituen hark, baina zein baldintzapen-erlazio dituzte ziklo linguistiko horiek metaketa-zikloekin eta ziklo politiko eta kulturalekin? Ikerketa sakonagoen faltan, hona, behin-behinean, lanerako hipotesi zenbait.

1874-76ko errestiturazio borbonikoari Espainiako estatu-egituren erreforma sakonak jarraitu zion. Erreforma horrek estatu-egituren zentralizazioa ekarri zuen, eta, besteak beste, hezkuntzaren eta armadaren bidez, estatuak gizarte zibilaren zuen eragina areagotu zuen. Horrez gain, erreforma-prozesuak Espainiako barne-merkatuaren sorrerari bide eman zion, zeinaren erakuntzan eragile porrokatua izan baitzen Neguriko goi-burgesia finantzarioa. Aldaketa horiek guztiek ahalbidetu zuten ekoizpen-modu kapitalistaren lehen sarrera Hego Euskal Herrian; ekoizpen-modu kapitalistaren sarrerak, berriz, euskara sustraituta zegoen sistema etnokratikoa^[1] desplazatzea ekarri zuen progresiboki. Ordezkapen-aroa sistema etnokratikoaren krisiari eta lehen industrializazioari lotuta interpretatuz gero, atzeman liteke nola, ekoizpen-modu tradizionala ekoizpen-modu kapitalistak ordezkatu ahala, gaztelaniak euskara ordezkatu zuen progresiboki. Nolanahi ere, desplazamendu horrek etnozentrismotik nazionalismo modernorako jauzia ekarri zuen politikan, hots, karlismotik jeltzaletasunerakoa eta, horren esku-tik, euskalgintzaren ziklo kultural indartsua piztu zen, zeinak biziberritze zantzuak utzi baitzituen harik eta 1936ko altxamenduarekin eten zen arte.

Ziklo ekonomiko eta politiko horretan, diglosia-modalitate zehatz bat sortu zen. Batetik, euskarak, modernizazio-prozesuaren lehen urratsak egin zituen arren (Lizardiren “baina nik, hizkuntza larrekia, nahi haunat ere noranahikoa”), hizkuntza administratiboa izan gabe eta bestelako goi-funtzioak bete gabe jarraitu zuen; bestetik, arlo ekonomikoan eta sozialean, nagusiki klase sozial aurrekapitalistetan gotortua, dominantea izateari uzten ari zitzaion ekoizpen-modu bateko hizkuntza dominantea bihurtu zen, alegia, subalternoa.

Erreparatu beharko genioke Euskal Herrian zein baldintzapen-erlazio izan diren 1876tik gaur arte Kapitalaren metaketa-zikloen, ziklo politikoaren, ziklo kulturalen eta ziklo linguistikoaren artean, eta erlazio horiek zein diglosia-modalitate sortu dituzten unean une

Euskal nazionalismo modernoak erlazio anbibalentea izan zuen garapen industrial eta urbanoarekin.

Izan ere, industrializazioak, erlazio-sistema etnokratikoa eta sistema horretan sustraitutako ezaugarri etnolinguistikoak mehatxatu bazituen ere, euskal nazionalismo modernoaren bi adierazle printzipalen gidari izango ziren subjektu sozial eta politikoak sortzea ere ahalbidetu zuen

Diktadurapean, euskararen aurkako zigor- eta debeku-errejimena asko gogortu zen, eta, garapen bidean zen sistema sozioekonomiko berrian sustraitu gabeko hizkuntza izateaz gain, erlazio etnokratikoen barruko esfera publikoa ere galdu zuen. Gerraosteko urterik gogorrenetan, esparru pribatuan gotortu behar izan zuen kriptoeuskalduntasunaren forman. Egoera horretan, ordezkapen-prozesuak, oinarri estrukturalak lehendik ezarriak zeuzkanak, bizkortzera egin zuen. Alabaina, aipatzekoa da frankismoa ez zela soilik diktadura militarra izan. Aldi autokratikoaren ondoren, frankismoaren fase desarrollistak Espainiako ekonomiaren modernizazio fordista eta liberala ekarri zituen, 1959ko Egonkortze Planaren eskutik. Bada, modernizazio-prozesu horrek foku industrial garrantzitsuenetakoa Hego Euskal Herrian izan zuen beste behin. Bigarren industrializazio-olatuak burura eraman zuen lehenengoak hasi besterik egin ez zuen prozesu historikoa: ekoizpen-modu tradizionala erabat zokoratuta, euskararen krisia baserriaren krisiaren korrelatu linguistikoa izan zen. Dena den, argazki hori sinpleegia gerta liteke. Izan ere, hori besterik gertatu izan ez balitz, euskara ekoizpen-moduaren ordezkapenarekin batera desagertu izango zatekeen mekanikoki.

Hemen, prozesuaren bi ertz iruditzen zaizkit azpimarratzekoak. Alde batetik, ekoizpen-modu kapitalistaren sarrerak ez zituen kolpean desagerarazi sistema etnokratikoa eta klase sozial tradizionalak; 1876 eta 1976 urteen arteko mendean zehar jazo zen hori, progresiboki, bi azkarraldi-unerekin. Horiek horrela, erlazio etnokratikoen eta kapitalisten elkarbizitzak gizarte-formazio konplexu bati eman zion bide, zeinean,

ekoizpen-modu kapitalista dominantea izanagatik, gizarte-erlazio tradizionalak ere determinatu baitzuten gizartearen morfologia modernoak.

Beste alde batetik, euskal nazionalismo modernoak erlazio anbibalentea izan zuen garapen industrial eta urbanoarekin. Izan ere, industrializazioak, erlazio-sistema etnokratikoa eta sistema horretan sustraitutako ezaugarri etnolinguistikoak mehatxatu bazituen ere, euskal nazionalismo modernoaren bi adierazle printzipalen gidari izango ziren subjektu sozial eta politikoak sortzea ere ahalbidetu zuen. Euskarak ezin izango zukeen mundu modernoan bizirik iraun hizkuntzaren beraren modernizazio-prozesurik gabe; prozesu horrek, aldiz, ezin izango zukeen gertatu proiektu politiko etnozentrismaren eta hura gidatu zuten gizarte-sektoreen eskutik. Horrenbestez, industrializazio-prozesuak euskararen egitura sozial tradizionala hiltzorian utzi zuen arren, mundu modernoan bizirik irauteko posibilitate-baldintzak ere prozesu horrek jarri zizkion. Industrializazio-fokuak, esaterako, Andaluzian eta Extremaduran ezarri izan balituzte, motelagoa izango zatekeen, agian, ordezkapen-prozesua, baina baita askoz hilgarriagoa ere. Horren adibideak dira Okzitania, Bretania edo, aparte erreparatuz gero, Ipar Euskal Herria. Frantziako garapen industrialaren fokuetatik kanpo geratu zirenez, gizarte horien ehun ekonomikoak barne-merkatu estatalaren barruan garatu ziren, baina erabateko mendekotasun-baldintzetan. Hartara, haien gizarte-osaerak askoz ere motelago aldatu ziren zentzu modernoan: klase sozial tradizionalak iraun zuten, baina dinamika ekonomiko kapitalistak gero eta itoagoak. Ondorioz, ez zuten mugimendu nazionalista moderno indartsurik eratu.



Hego Euskal Herrian, berriz, frankismoaren de-sarrollismoaren garai horretantxe eratu zen XXI. mendearen hasierara arte iraun zuen ziklo politikoa, ezkerreko abertzaletasun modernoarena. Ezkerreko abertzaletasunaren eskutik, erabat gauzatu zen etnozentrismotik nazionalismo modernorako jauzia, bai eta tesi sozialistetarako hurbilpena ere, eta ziklo politiko horrek eta berorri lotutako ziklo kulturalak egin zuten posible biziberritze-aroa: euskararen estandarizazioa, helduen eta haurren alfabetatzea, literaturaren eta kantagintzaren berpizkunda, komunikabideen loraldia; guztiak ere, soilik ezaugarri etnozentrikoetatik haragoko nazioaren eraikuntza-proiektu modernoaren baitan gauzagarriak.

Geldotze-aroa argitzeko gakoa erdi-mailako klaseko gizarte-estandarizazioa izan liteke. Espainiako trantsizioa izan zen estandarizazio-prozesu horren forma konkretua Hego Euskal Herrian, baina trantsizioa zentzu zabalean ulertuta; hau da, antagonismo sozialak eta nazionalak estatuan integratzeko/desegiteko prozesu gisan. Emmanuel Rodríguez bitxikeria argigarria irakurri nion *El efecto clase media* liburuan. 1971n, Vernon Walters jeneral estatubatuarra Madrilera joan ei zen Nixonek bidalita, Francori galdetzero urteen buruan zer gertatuko ote zen Espainian. Francok esan omen zion: “Zure presidenteari egiaz interesatzen zaiona da Espainian zer gertatuko ote den ni hil eta gero, ezta? Nik zenbait erakunde sortu ditut; inork ez du uste funtzionatuko dutenik. Oker dabilta. Oraingo printzea errege izango da, ez baitago alternatibarik. Espainia urrun helduko da zuek, ingelesek eta frantsesek desio duzuen bide horretan: demokrazia, pornografia, droga, zer dakit ba nik. Erokeria handiak gertatuko dira, baina bat ere ez hilgarria Espainiarentzat. Duela berrogei urte herrialde honen gobernua hartu nuenean topatu ez nuen gauza bat utziko dut nik. Erdi-mailako klase espainiarra. Esan zure presidenteari izan deza la konfiantza espainiar herriaren zentzu onean: ez da beste gerra zibilik egongo”. Rodríguezen ustez, frankismo berantiarrak jarri zuen sozioekonomikoki Espainiako erdi-mailako klasearen oinarria; trantsizioak, aldiz, forma politikoa eta kulturala eman zion: alderdi politikoa eta sindikatuak estatu-aparatuaren parte bihurtu zituen eta, haien bidez, langile-klasea eta haren borroka estatuan integratu zituen; autonomien lurralde-ereduak gatazka-ardatz nazionala iragazi zuen; kontsumo ereduak, ohituren liberalizazioak eta ongizate-me-

Gatazka-ardatzen integrazio-eta desegite-prozesutzat jotzen badugu trantsizioa, ondorio logikoa da Hego Euskal Herrian trantsizio-prozesua ez zela bukatu ENAMen guztizko integrazioa gauzatu zen arte. Nahiz eta erdi-mailako klaseko gizarte-estandarizazioa gainontzeko tokietan bezain sakona edo are sakonagoa izan zen arlo gehienetan, Hego Euskal Herrian integrazio-prozesu politikoa oso gatazkatsua eta luzea izan zen, eta horrek eragina izan zuen euskalgintzan

kanismoek, berriz, ez burgesak ez proletarioak ez ziren erdi-mailako klasearen kideasun-sentipena eta bizi-eredua ekarri zituzten. Finean, trantsizioak burura eraman zuen erdi-mailako klaseko gizarte estandarizatuaren proiektu egiaz frankista.

Hala ere, gatazka-ardatzen integrazio- eta desegite-prozesutzat jotzen badugu trantsizioa, ondorio logikoa da Hego Euskal Herrian trantsizio-prozesua ez zela bukatu ENAMen guztizko integrazioa gauzatu zen arte. Nahiz eta erdi-mailako klaseko gizarte-estandarizazioa gainontzeko tokietan bezain sakona edo are sakonagoa izan zen arlo gehienetan, Hego Euskal Herrian integrazio-prozesu politikoa oso gatazkatsua eta luzea izan zen, eta horrek eragina izan zuen euskalgintzan.

Frankismo berantiarreko fenomeno ekonomiko, politiko eta kulturalak izan ziren Euskalgintza sozialaren eta biziberritze-aroaren hazitegia; euskalgintza instituzionalaren ongarrria, berriz, trantsizio-prozesuak jarri zuen: hezkuntzan, komunikabideetan eta alfabetizazioan biki instituzionalizatu eta profesionalizatuak agertu zitzaizkien euskalgintza sozialaren instituzio herrikoiei (D eredua, EITB, HABE, etab.). Dena den, gatazka politikoaren integrazio-prozesua bezalaxe, euskalgintzaren integrazioa ere gatazkatsua izan zen, eta horrek euskalgintza sozialaren eta instituzionalaren arteko tentsiozko elkarrekikotasun-erlazioari egin zion bidea, zeinak egun arte iraun baitu. Hala ere, integrazio politikoa aurrera egin ahala, euskalgintza instituzionala sozialari gailendu zitzaion apurka.

Nire ustez, prozesu beraren osagai elkarlotutzat jo litezke erdi-mailako klaseko gizarte-estandari-zazioa, ENAMen integrazio-prozesu politikoa eta euskalgintza instituzionala sozialari gailentzea, eta geldotze-aroaren kausak argitzeko balio lezakete. EAEn jazo da modu puruenean prozesu hori, eta euskararen diglosia-modalitatea erlatiboki alde-rantzikatu du: batetik, euskara goi-funtzioen jabe egin da, erlatiboki, autonomia-erregimenaren markoan, eta goi-funtzio horiek exekutatzen dituzten erdi-mailako gizarte-sektoreetan gotortzera egin du; bestetik, euskalgintza sozialaren apaltzeak eta kapitalismoaren dinamika glotofagoak funtzio sozial informaletatik kanporatu dute euskara.

Kontuak kontu, EAE da euskararen normalizazio-maila altuena lortu den administrazio-markoa eta, pragmatikoki, batek pentsa lezake indargunea-ri ertzak bilatzen ibili ordez hobe dela lubaki hori mantentzea eta defendatzea. Dena den, egungo normalizazio-ereduaren adibide bukatuena delako komeni da, hain justu, gupidarik gabe kritikatzea, ereduaren beraren irismena eta mugak atzematea

ahalbidetzen baitu horrek. Euskararen biziraupe-na ez dago estrategikoki pentsatzerik horrela ez bada. Edozein kasutan, bistakoa da Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian euskararen egoerak ezaugarri partikularrak dauzkala; hortaz, lan-ildoak eta alda-riak ere bertako egoerei egokitu behar zaizkie, ez EAETik deduzitutako modelo puruari.

OHAR PARE BAT KOIUNTURAZ ETA NORMALIZAZIOAZ

Esan beharrik ez dago ikuspegi estrategikoaz eta euskararen konfigurazio historikoaz eta materialaz egin ditudan ohar horiek hankamotzak direla, eta euskararen trataera estrategikoak eta materialistak ikerketa sakonagoa eta kontzeptuen esposizio sistematikoagoa behar dituztela. Nire motzean, ordea, behin-behineko kontzeptuak baliatzea beste modurik ez dut euskararen koiuntura interpretatzeko, hala nola euskararen aurkako oldarraldia, gorakada erreakzionario potentziala euskalgintzan eta ofizialtasunaren afera EAEn eta EAETik kanpo.

Frantziako iraultzaren bataio-agiririk entzute-tsuena izango da akaso *Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Adierazpena*, zeinak modu arranditsuan aldarrikatu baitzuen: “ Gizakiak askeak eta berdinak jaiotzen dira eskubideetan”. Frantziako estatuak eta Espainiakoak, ordea, bigarren mailako hiritar-estaturean azpiratuta izan dituzte linguistikoki euskaldunak. Oraindik ere bagauzkate, batez ere Nafarroako eremu “mistoan”, “ez-euskaldunean” eta Ipar Euskal Herri osoan. Frantziak, bereziki, hipokrisiaren omenezko monumentu nardagarrienaren estigma du euskaldun askoren iruditerian. Izan ere, jakinekoa da burgesiaren gizarte-ereduak ez dituela eta, gainera, egiturazko arrazoiengatik ezin dituela bere aitzindarien hiritartasun-amets formalak inondik ere erreal bihurtu.

Egitate horren kontzientziak eraginda, iraultza sozialistaren eginkizun demokratikoez jabetu ziren komunista asko XIX. eta XX. mendeetan; besteak beste, boltxebikeak. Ildo horretan, Leninek argi izan zuen hasieratik pribilegio eta zapalkuntza nazionalak eta linguistikoak ezabatzea programaren puntu eztabaidaezina zela. Gainera, ezabapen hori *sine qua non* baldintzatzat jo zuen Errusiako Inperioak eragindako barne-tentsio etnikoak gainditzeko eta nazio guztietako langileen batasuna gauzatzeko.

Egungo komunistok ere, sozialismoaren eginkizun demokratikoen ikuspegitik erreparatu behar genioke auzi partikular horri, edo nik hala uste dut behintzat: euskarak ofizialtasun osoa behar du. Dena den, horrek euskararen diglosia-egoeraren aurkako lan-ildo partikular bat baizik ezin du izan. Izan ere,


Itxura guztien arabera, euskara administratiboki azpiratzeko eta egoera hori juridikoki betikotzeko estrategia (estrategia funtsean politikoa) exekutatzen ari dira auzitegietan eta, normala denez, alarma guztiak saltarazi ditu horrek euskalgintzan. Dena den, oldarraldiaren aurkako kanpainaren zentraltasunak berak euskalgintzaren gabezia estrategikoak utzi ditu agerian

ofizialtasuna beharrezkoa eta justiziazkoa den arren, euskararen partida estrategikoa ez dago joko-ze-lai horretan, normalizazio-ereduan baizik. Bestela esanda: euskarak funtzio sozial guztiak egiturazko trabarik gabe bete ahal izateko estrategian.

Horri lotuta, esanguratsua iruditzen zait euskararen koiunturan puri-purian den gai baten trataera; euskararen aurkako oldarraldiarena, hain zuzen. Itxura guztien arabera, euskara administratiboki azpiratzeko eta egoera hori juridikoki betikotzeko estrategia (estrategia funtsean politikoa) exekutatzen ari dira auzitegietan eta, normala denez, alarma guztiak saltarazi ditu horrek euskalgintzan. Dena den, oldarraldiaren aurkako kanpainaren zentraltasunak berak euskalgintzaren gabezia estrategikoak utzi ditu agerian. Izan ere, zentraltasun horrek due-la hogeit urtetik agortze-zantzuak erakusten ari den normalizazio-ereduaren (hots, geldotze-ereduaren) defentsan kateatzea dakar, eta hori porrot estrategikoa izan liteke epe luzean. Pentsa dezagun zintzoki: zeintzuk dira funtzio administratiboetako euskara-profilaren defentsak interpelatzen dituen

gizarte-sektoreak? Diglosia-modalitate alderantzikatuaren analisiak, zuzena den kasuan, euskararen biziraupen-estrategia sozialki espantsiboak pentsatzera eraman behar gintuzke, ez langile-klasearen geroago eta sektore zabalagoak integratzeko zailtasuna duten estatu-egituren defentsa gurtzera. Goi-funtzioetan erabateko elebitasuna lortuta ere, integrazio-mekanismoen krisiak geroago eta jende gehiago uzten du horietara sarbiderik batere gabe; horrenbestez, euskalgintza instituzionalaren eragin-marjina urrituz doa. Erabateko elebitasun administratiboak euskaldunen hiritartasun formala sendotuko luke, baina ez luke izango diglosia-egoerari aurre egiteko gaitasunik; izan ere, funtzio ekonomikoetan eta funtzio sozial informaletan azpiratutako hizkuntza administratiboa izatea da euskararen egungo diglosia-modalitatearen ezaugarri behinena. Horregatik, oldarraldiaren aurkako lan-ildoak diglosia-egoeraren aurkako estrategia zabalago baten barruan soilik leukake zentzua; lan-ildo hori estrategia bilakatzea, berriz, atzerapauso estrategikoa da. Posizioak mantentzea ez da garaipen taktiko txikia izaten; posizioak mantentzera mugatzea, ordea, estrategikoki atzeraka egitea izaten da batzuetan, batez ere posizioak berak estrategikoa izateari uzten dionean.

Ea, kontziente naiz egoeraren irakurketa horrek, nola interpretatzen den, ezkerkerian erortzeko arriskua dakarrela. Ez dut ukatuko interesez jarraitu nuela Anton Arriolaren adierazpenen harira (esan zuen kanpoko talentua Euskal Herrira erakartzeko traba dela euskara) Hedoi Etxartek eta Santi Leonek izan zuten polemikaxoa. Etxartek sare sozialetan euskararen aldeko adierazpentsat jo zuen Arriolarena erretorikoki: “Ba niretzat, adierazpen hauek euskararen aldeko adierazpenak dira. Euskara askapenaren ardatzean nahi dugunon euskararenak, noski. Nire euskalduntasunaren mugen baitan ez bankari, ez epaile, ez polizia”. Leonek, berriz, euskara “batzuen ondasun pribatu” bihurtzea egotzi zion Euskalerrria Irratian Etxarteri, eta adierazi zuen jarrera horrek diglosia betikotzeko desira ezkutatzaren due-la. Nire iritziko, biek daukate arrazoi pixka bat, baina biak daude oker. Leonek arrazoa du euskararen noranahikotasunaren, normalizazioaren garrantzia azpimarratzean, ukaezina baita euskararen aldeko estrategia gisan euskararen *diglosia-eredu politizatu* bat aldarrikatzea hankamotza eta, are, kontraesankorra dela. Dena den, ez dio Etxarteren kezka inplizitu garrantzitsu bati heltzen: normalizazio-ereduarekiko kezkari. Horrez gain, haren ikuspegiak euskararen aurreko biziberritze-aroaren eta letorkeenaren faktore soziopolitikoak gutxiesteko arris-



kua ere badakar; alegia, euskararen aldeko borroka beste borroka-ardatz batzuekin modu (nahi bada) metakorrean artikulatzeak duen garrantzia gutxies-tekoa. Etxartek, aldiz, arrazoa du normalizazio-eredua problematizatzean, baina normalizazio-eredu alternatiboa kontrajarri orde, diglosia-eredu alternatiboa kontrajartzen dio, itxuraz behintzat. Hortaz, diglosiaren aurkako eta normalizazioaren aldeko estrategiarik gabe, euskararen subalternitatea eta artikulazio askatzailea aldarrikatzeak euskara iraultzaileen ikur identitario bilakatzea ekar lezake: ezkerkeria da, nahiz eta intuizio egoki batetik abiatu.

Litekeena da, sartzekotan, diskurtso erreakzionarioa migrazioaren inguruko “kezka zintzoz” mozorrotuta sartzea, egungo migrazio-olatua eta letozkeenak kultura nazionalaren aurkako mehatxutzat jota

Lehenaz gain, bada beste elementu bat koiuntura politikoro korrraren erdigunean dagoena eta, oraindik euskalgintzan mamitu ez bada ere, giroan geroago eta gehiago suma daitekeena: gorakada erreakzionarioa. Egunik egun, Mendebaldeko potentzia handien hazkunde-tasak eta eragin inperiala beheraka doaz, aberastasunaren polarizazio soziala areagotzen ari da, langileen erosahalmena higatuz doa, zerbitzu publikoak murriztuz. Aberatsak aberatsago, pobreak pobreago; nornahik ikusten du hori. Ofentsiba ekonomikoaren eskutik, ordea, eskubide sozial eta politikoak murrizteko ofentsiba ere indarrean da Mendebaldean. Testuinguru horretan, erdi-mailako klase nazionalen jarrera ideologikoak erradikalizatzen ari dira nazionalismo identitario-rantz eta klasismorantz. Euskal Herrian ere badira zantzuak, bai giro politiko orokorrean, bai eta azkenaldian sortu diren eragile politiko partikular zenbaitetan ere. Esango nuke euskalgintza gaur-gaurkoz ez dagoela, inondik ere, kode horretan, baina salbu ere ez dago. Bizi duen krisi estrategikoak noraeztuta, sendotzen ari den giro kultural erreakzionarioak euskalgintzan eragitea eta hura biltze identitarioan erorerraraztea ez da hipotesi inprobablea.

Litekeena da, sartzekotan, diskurtso erreakzionarioa migrazioaren inguruko “kezka zintzoz” mozorrotuta sartzea, egungo migrazio-olatur eta letozkeenak kultura nazionalaren aurkako mehatxutzat jota. Alabaina, pertsona migratuak, subjektu debaluatu eta integraezin gisan, efektu bat dira, ez kausa bat; integrazio-mekanismo ekonomikoe-tatik eta administratiboetatik kanpo daude eta, ondorioz, ez dira kabitzen erdi-mailako klasearen kultur fikzio kolektiboan. Euskarazko murgiltze linguistikorik eza horren adierazle bat gehiago da, hein batean. Nabarmena da hori D ereduko eskoletan, non murgiltze linguistikoa hain baita lotsagarria, hain baitauzka baliabide urriak, ezen haur migratuak bi aldiz debaluatzen baititu, linguistikoki eta kognitiboki. Ez dira migratuak euskararen aurkako mehatxua, haiek subjektu debaluatu gisan produzitzen dituen dinamika soziala baizik. Migrazio-eredu neoliberalaren kritikaz jantzita, migratuen kontrako diskurtso erreakzionarioak subjektutasun debalua-tu hori erreproduzitzeko baizik ez du balio. Hortaz, komunitate nazionalaren ideia identitario eta klasistak, ustez euskara babestu nahian, euskararen diglosia-modalitate espezifikoa indartu baizik ez du egiten.

Gainera migrazio-olaturek mekanikoki euskararen galera dakartelako ideia ez da zientifikoa. Kuantitatiboki, Euskal Herrira jende-masa erdaldun bat ailegatzeak euskaldunen batez bestekoa aldatzen du

hasieran, alferrik da hori ukatzea. Prozesu historikoak eta sozialak, ordea, ez dira prozesu kuantitatibo soilak. Immigrazioa eta euskararen ordezkapena korrelatiboak izan litezke *baldintza jakinetan*, baina hortik ezin ondoriozta liteke bataren eta bestearen artean kausa-efektu erlazio erabatekorik. Arestian aipatu dudan biziberritze-aroa da horren frogarik behinena, zeina Euskal Herriak inoiz jaso duen immigrazio-olaturik handienaren ondoren etorri baitzen. Ez kasualitatez, gainera: immigrazio-olatu hori euskararen biziberritze-aroa posible egin zuen prozesuaren nahitaezko osagaia izan zen. Egiaz, immigrazioa eta hizkuntz ordezkapena korrelatibo egiten dituen faktoreetako bat, besteak beste, diskurtso erreakzionarioa da, langile euskaldunen eta migratuen arteko segregazio soziala, politikoa eta kulturala indartzen baititu. Ildo horretan, euskararen diglosia-egoeraren aurkako borroka klase-batasunerako estrategia orokorraren barruko lan-ildotzat dugunok erne egon behar dugu, eta irmo egin behar diegu aurre erreakzioaren adierazleak diren jarrera

Kurioski, hizkuntza gutxituen fenomenoa ere prozesu horren beraren nahitaezko ifrentzua da: nazioen Europa eraikitze prozesuak berak eman zien hizkuntza batzuei moderno eta hegemoniko izaera eta, besteei, izaera subalternoa. Hortaz, nazio-estatu moderno
en existentziak berak hizkuntza gutxituen existentzia inplikatz
en badu, hizkuntza gutxituen normalizazio-eredu orokorrak ezin du nazio-estatuena izan

klasista eta nazionalista identitarioei, hala euskalgintzan nola euskalgintzatik kanpo.

Politikagintza (eta artegintza) sozialistaren ekarpen positiboari dagokionez, ohar orokor bat. Arestian, estrategia sozialistaren mediazio-lanetan kokatu dut euskararen diglosia-egoeraren aurkako borrokaren funtzioa. Horren ifrentzua, ordea, honakoa da: politikagintza (eta artegintza) sozialista ere izan liteke euskararen diglosia-egoeraren aurkako borrokaren mediazioa. Euskararen diglosia-egoerak daukan klase-dimentsioaren analisia zuzena bada, hau da, euskara proletalgoaren zenbait sektoretan sustraitzea zailtzen duen eta erdi-mailako klasean gotorraztzen duen diglosia-egoera espezifiko bat baldin badaukagu, egoera horrek erronka soziodemografiko jakinak determinatzen ditu euskararentzat. Politikagintza sozialistaren lan-ildo taktiko guztiak zeharkatzen dituen helburu orokorra, berriz, klase-batasun politikoa eta kulturala erdiestea den aldetik, proletalgo euskaldunaren eta erdaldunaren arteko lokailu politikoa eta kulturala izatea da lan-ildo horien aspektuetako bat. Horrenbestez, Euskal Herriko antolakunde sozialisten jardunak kokapen pribilegiatua du, objektiboki, euskararen erronka horiek ebazten ekarpena egiteko.


Bukatzeo, galdera garrantzitsu bat. Tokian tokiko partikulartasunez harago, zeinek izan behar du hizkuntza gutxituen normalizazio-ereduak? Euskara ez da Europako hizkuntza gutxitu bakarra. Hortaz, nazioartekotzen doan heinean, litekeena da mugimendu sozialistak, han-hemenka, hizkuntza gutxituen arazoa politikoki pentsatu behar izatea. Bistan denez, diglosiaren kontra egiteak normalizazioaren alde egitea dakar; behintzat, normalizaziotzat jotzen badugu hizkuntza batek funtzio sozial guztiak betetzeko egiturazko trabarik ez duen egoera. Dena den, arantzatsua da normalizazio-ereduaren gaia. Izan ere, hizkuntza bernakuloen normalizazioa modernitateko fenomeno historiko espezifikoa da eta hertsiki lotua dago nazio-estatu modernoan eraikuntza-prozesuari eta ekoizpen-modu kapitalistaren hegemonia historikoari. Kurioski, hizkuntza gutxituen fenomenoa ere prozesu horren beraren nahitaezko ifrentzua da: nazioen Europa eraikitzeo prozesuak berak eman zien hizkuntza batzuei moderno eta hegemoniko izaera eta, besteei, izaera subalternoa. Hortaz, nazio-estatu modernoan existentziak berak hizkuntza gutxituen existentzia inplikatz en badu, hizkuntza gutxituen normalizazio-eredu orokorrak ezin du nazio-estatuena izan (kasu bakanen batek arrakasta izatea zalantzarria baina posiblea izan arren). Gainera, komunistontzat, diglosiaren aurkako taktikak ezin


du inplikatu estatu-egitura burges berriak eratzeo estrategiak akritikoki bultzatzea. Aitzitik, estrategia sozialista Euskal Herrian lurreratzeak eraman gaitu euskararen diglosia-egoerari aurre egin beharra aldarrikatzera. Hortaz, estrategia sozialistaren ikuspegitik, hizkuntza gutxituen normalizazioaz hitz egiteak autodeterminazio-eskubidearen aldarriari eta estatu sozialisten eraikuntzari lotutako normalizazio-ereduaren inguruan hausnartu beharra dakar nahitaez.

Argi utzi nahi dut ez dudala euskara salbatzeko formulagintzan jarduteko pretentsiorik, ez inoren lana gutxiestekorik. “Gorbeiara joateko gutizia sortzen zait barrenean” neuri ere lantzean behin, “bertan organizatzeko euskararen salbazioa, baina hemen geratzen naiz, kale arte honetan, milagro baten zai”. Konponbiderik nik ez daukat, dauzkadanak dira, kopia txikian, debate publikora ekarri nahi ditudan ideia solte zenbait, gogoan darabiltzadan in-tuizioak eta, batez ere, galderak. Gabriel Arestik zin egin zuen hil arte euskalduna eta marxista izango zela. Geure hilarrietan ere idatz dezatela: “Euskalduna eta marxista izan zen”. ●

OHARRAK

[1] Emilio López Adan *Beltzari* hartu dizkiot “sistema etnokratiko”, “etnozentrismo” eta horrelakoak. Lehenak, Euskal Herrian ekoizpen-modu kapitalista hegemonikoa bilakatu aurreko erlazio sozialen multzoari egiten dio erreferentzia; bigarrenak, berriz, nazionalismo modernoan sortu aurreko mugimendu politikoen mundu-ikuskerari, zehazki, karlismoarenari. Ikus *Nacionalismo vasco y clases sociales* liburuko “La crisis del etnocentrismo” atala.





Inork ez dezala esan

Testua — **Eli Irazu**

Irudia — **Manubeltz**

Egun batean, Kristo oraindik jaio gabeko garaian, nekazari batek brontzezko esku bat iltzatu zuen bere atean, jakin gabe 2000 urte beranduago Bulegok kanta bat eskainiko ziola, balizko amuletoa borondate euskaltzale transhistoriko baten eramaile izendatuz. Handik 800 urte baino gehiagora, omeiatarrek Wannaqo Ibn Wannaqo esaten zioten delako bat Iruñeko erresumako errege koroatu zuten; hamabi menderen buruan, Euskal Herriaren burujabetasunaren ikur gisa ere koroatuko zuten, erretroaktiboki.

Gure sorioneko herriaren inguruko istorio hauek ez dira, noski, gauza batere apartekoak. Nazio guztiek dituzte, azken finean, haien mitoak; zaharrak agortzean, beste batzuk sortzen dira, garai berriei hobeto egokituak. Baina –asko sinplifikatuz– logika nazionalistaren funtsezko operazioa berbera da: euskaldun proletarioa eta Eneko Aritza eta bere ama Oneka eta CAFeko presidentea eta Burdin Aroko Sertorioren gerran etxea eta –segur aski– burua galdu zuen nekazari gizajo bat eta Aitor Esteban; hona hemen euskal nazioaren seme-alabak. Hona hemen familia bat, familia guztiek bezala bere gorabeherak dituen, baina beste ezeren gainetik leialtasuna zor zaiona.

Batasun interklasista honen ondorioa, noski, langile klasearen zatiketa da. Beste nazioetako proletarioak, edo euskal kulturari asimilatu gabekoak, ez dira subjektu politikoaren parte, kasu onenean; kasu okerrenean, etsaiak edo inbaditzaileak dira. Eta komunistok, berriz, proletariotzaren batasun internazionala aldarrikatzeagatik, traidoreak; gaurko hizkeran, hizkuntza eta kultura lokalei bizkarra ematen diegun globalismo maltzuraren agenteak.

Horregatik da guretzat hain interesgarria Arestiren figura: euskal letren eta euskararen beraren modernizazioaren ariete bat izan zenak ez zuelako inolako konplexurik izan nazionalismoaren funtsa den euskaldunen arteko anaitasuna –interklasismoa– gogor kritikatzeko.

Horregatik da guretzat hain interesgarria Arestiren figura: euskal letren eta euskararen beraren modernizazioaren ariete bat izan zenak ez zuelako inolako konplexurik izan nazionalismoaren funtsa den euskaldunen arteko anaitasuna –interklasismoa– gogor kritikatzeko

Eta, beraz, 1968an, Arantzazun, Euskaltzaindiaren 50. urteurreneko biltzarrean (zeina, bide batez, euskararen batasunari eskaini zitzaion, Arestiren eskariz), Manuel Lekuona euskaltzainburuak oinaztarren eta ganboatarren ereduari ez jarraitzeko eta euskaldunen batasunari eusteko deia zabaldu zuenean, gure poetak olerki bat idatzi zuen, Erdi Aroko leinu gipuzkoar horien izena zeramana. Eta olerkiak dio:

*Bostehun urtean egon
gara justizi-eske
baina sua eta ura
ezin nahas ditezke,
irakin edo amata
ez dago ezer beste,
inork ez dezala esan:
“adiskide zaitzete” ●*

Argitalpena
2025KO MAIATZA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa eta
diseinua
**GEDAR LANGILE
KAZETA**

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
**HARREMANAK@
GEDAR.EUS**

Harpidetza
**GEDAR.EUS/
HARPIDETZA**

Edizioa
**ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA**
AZPEITIA

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Licencia


Editoreen oharra: Artekako artikuluetan ageri diren ideia,
baieztapen eta ondorioak artikuluko bakoitzaren egilearenak
dira.

arteka